



Akta honen osagarri, bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

[e1e8fcb2c31af5507178f8a77393a708b068745a8658d5785fa322b88af091f8](https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak)

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2021EKO IRAILAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2021.09.30

Tolosako Udaletxean, 2021eko irailaren hogeita hamarrean, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

Parte hartu duten zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)

Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV)

Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)

Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)

Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)

Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)

Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)

Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EHBILDU)

Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU), bere izenean eta Ander Figuerido Zubiria zinegotziaren izenean.

Aitana Amondarain Esquisabel (EHBILDU)

Aitzol Garcia Azurmendi (EHBILDU)

Olatz Artola Apezteguia (EHBILDU)

Garbiñe Marzol Ormazabal (EHBILDU) (2. puntua hasi aurretik bertaratu da)

Xabier Martinez Quinquilla (EHBILDU)

Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE)

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso



Eguneko gai-zerrenda

1. Ondorengo akta onartzea:
2021eko uztailaren 29ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.
2. Hasierako onarpena ematea, 2022. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari:
Ordenantza orokorra, zergak eta zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko.
 - a) EH Bildu udal taldeak aurkeztutako 1. eta 2. enmendakinak.
 - b) Irizpena.
3. Hasierako onarpena ematea, 2022. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari:
Ondasun higiezinari buruzko zerga erregulatzen duen Ordenantza Fiskala.
4. Hasierako onarpena ematea, 2022. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari:
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala.
 - a) EH Bildu udal taldeak aurkeztutako 3. enmendakina.
 - b) Irizpena.
5. Hasierako onarpena ematea, 2022. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari:
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala.
6. Hasierako onarpena ematea, 2022. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari:
Hiri izaerako lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala.
7. Hasierako onarpena ematea, 2022. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari:
Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.
8. Hasierako onarpena ematea, 2022. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari:
Herri jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkien tasen Ordenantza Fiskala.
9. Hasierako onarpena ematea Ordenantza Fiskal honen aldaketari:
Zerbitzuak eman edo udal jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza.
10. Itxitako ekitaldietako ordainagiriak onartzea.
11. Hasierako onarpena ematea konpromiso kredituak onartzeko espedienteari.
12. Berri ematea: 2021/1566 Alkatetza Dekretua, 6/2021 kreditu aldaketarako espedienteari dagokiona, kreditu gehigarrien modalitatean



13. Onartzea Kirolzer, S.L. enpresak Tolosako udalaren kirol instalazioen kudeaketa integralaren emakidaren oreka ekonomikoa berrorekatzeko eskaera, Covid-19 koronabirusak sortutak egoera dela eta.
14. Onartzea Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua arautuko duen adjudikazioaren kontratazio jardunbidea, eta lizitazioari hasiera ematea.
15. Onartzea Tolosako Udalaren eta Izfe, S.A. -Informatika Foru Sozietarearen arteko lankidetzaren hitzarmena.
16. Topic dagoen eraikinaren erabilera pribatiboari demaniozko kontzesio espedientea iraugitzea.
17. Behin betiko onespina ematea Asuncion klinikaren eraikina handitu ahal izateko xetetasun azterlanari.
18. Onartzea lankidetzaren hitzarmena, Asunción klinikako saneamendu pribatua eta Izaskungo Aldapako saneamendu-sare publikoa hobetzeko xedea duena.
19. Tolosako Hiri Antolamenduko Plan orokorreko 24. lurre Hirigintza esparruko aldaketa puntualari buruzko espedientea hasia eta herritarren parte-hartzeko programa onartzea.
20. Tolosako udalean etxebizitak alokatzeko dirulaguntza emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza behin betikoz onartu izanaren berri ematea.
21. Burujabetza energetikoari buruz mozioak.
22. Galderak eta eskaerak.

Idazkariak adierazi du 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakunde buruzkoak, 25.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, Ander Figuerido Zubiria zinegotziak bere botoa eskuordetzan eman diola Kristina Pelaez Errazkin zinegotziari, azken honek balia dezan haren aitatasun baimenak iraun bitartean.

Ondoren, batzarkideek bilkurako gai-zerrendari heldu diote.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2021EKO UZTAILAREN 29KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA (AKTA ELEKTRONIKOA).

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.



2. HASIERAKO ONARPENA EMATEA, 2022. URTERAKO, ORDENANTZA FISKAL HONEN ALDAKETARI: ORDENANTZA OROKORRA, ZERGA ETA ZUZENBIDE PUBLIKOAREN BESTELAKO SARRERAK KUDEATZEKO ETA BILTZEKO.

Ordenantza fiskalen aldaketen inguruko bi emendakin daude eta irizpena.

Udalbatzarkideak ados egonik Tasei dagozkien puntuen eztabaida batean egin da eta hiru bozketa, alde batetik bi emendakinak eta bestetik irizpenak.

EHBILDU UDAL TALDEAREN EMENDAKINA

2022rako Gobernuaren Ordenantza Fiskalen aldaketa proposamenaren aurrean Tolosako EH Bildu udal taldeak aurkeztu duen emendakinaren berri eman zai udalbatzarkidei. Honela dio:

- 1. Zerga eta tasen **igoera orokorra, %1,5** ekoa aplikatzea, KPI aren azpitik, neurgailu honek ez bait ditu barneratzen aldiroko aldakortasun nabarmena duten gaiak.*
- 2. Genero ikuspegiko fiskalitate baterako bidea egin hasi asmoz, **udal zerga, tasa eta prezio publikoei dagozkien datuak sexuaren arabera bereiztea**. Hau bait da, udal fiskalitateak, emakume eta gizonen artean ditzuzten eragin desberdinak aztertu ahal izateko lehen pausoa. Kontuan izanik udaleko baliabideak, egoki litzake, fiskalitatean eta zerga arloan laguntzeko ematen diren hobari, prezio jetsiera eta dirulaguntzen datuak sexuaren arabera sailkatuak jasotzen hastea.*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Aurkako botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **ez du onartu** EHBildu taldeak aurkeztu duen emendakina.



ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2021EKO IRAILAREN 22KO IRIZPENA

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2021eko irailaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen aztertu eta bozkatu ondoren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso eta Jose Mari Villanueva Telleria,

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin eta Aitana Amondarain Eskisabel.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- 2022. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriotarako eta Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailen 5eko 11/1989 zenbakidun Arau Forala erabilita behean agertzen diren ordenantzen aldaketei hasierako onarpena ematea proposatzen da.

**ORDENANTZA OROKORRA, ZERGAK
ETA UDAL ZUZENBIDE PUBLIKOAREN
BESTELAKO SARRERAK
KUDEATZEKO ETA BILTZEKO.**

**ORDENANZA GENERAL DE GESTIÓN
Y RECAUDACIÓN DE LOS TRIBUTOS
Y OTROS INGRESOS DE DERECHO
PÚBLICO LOCALES**

Lehen aldaketa:

Primer cambio:

Gaur egun, 6. artikulua ondorengo dio:

Hoy en día, el artículo 6 señala:

«6. Zerga-bilketa:

“6.º Recaudación de los tributos:

Zerga-bilketa kudeatzeko eraginkortasun-eta ekonomia- irizpideak direla-eta, 6,00 euroko kuota-likidua baino gutxiagoko likidazioak salbuetsi egingo dira.»

Por criterios de eficiencia y economía en la gestión recaudatoria del tributo, se procederá a la exención de las liquidaciones cuya cuota líquida no supere los 6,00 euros”

6 euroko kopurua 10 euro tara igotzea Se propone aumentar la cantidad de 6



proposatzen da. Artikulua honela geratuko litzateke:

euros a 10 euros, quedando el artículo 6 de la siguiente manera:

«6. Zerga-bilketa:

“6.º Recaudación de los tributos:

Zerga-bilketa kudeatzeko eraginkortasun-eta ekonomia- irizpideak direla-eta, 10,00 euroko kuota-likidoa baino gutxiagoko likidazioak salbuetsi egingo dira.»

Por criterios de eficiencia y economía en la gestión recaudatoria del tributo, se procederá a la exención de las liquidaciones cuya cuota líquida no supere los 10,00 euros.”

Bigarren aldaketa:

Segundo cambio:

Gaur egun dagoen zatikapen prozedura mantenduz, prozedura murriztuagoa duen zatikapenen beste aukera bat onartzea proposatzen da.

Manteniendo el procedimiento de fraccionamiento actual, se propone aprobar la posibilidad de otro procedimiento más abreviado:

Zergen eta Tokiko Zuzenbide Publikoko beste Diru-sarrera batzuen Kudeaketa eta Bilketa arautzen dituen Ordenantza Orokorren 9. artikulua honako hau dio:

El artículo 9 de la Ordenanza General de Gestión y Recaudación de los Tributos y otros ingresos de derecho público locales señala lo siguiente:

“9. artikulua – Ordainketak geroratzea eta zatikatzea.

“Artículo 9.- Aplazamientos y fraccionamientos de pago.

1. Ordainketa geroratzeko eta zatikatzeko eskaerak Tolosako Udalak Ordenantza honetan onartutako xedapenen arabera izapidetu eta ebatziko dira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduaren 37.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Bestela, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduan ezarritako modua aplikatuko da subsidiarioki.

1.º La tramitación y resolución de las solicitudes de aplazamiento y fraccionamiento de pago se realizará de acuerdo con las disposiciones aprobadas por el Ayuntamiento de Tolosa en esta Ordenanza, de acuerdo con lo previsto en el artículo 37.3 del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa. En su defecto, la regulación establecida en el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa les será de aplicación de forma subsidiaria.

2. Geroratzea edo zatikatzea eskatuko da ordainketa une honetan egitea ekonomikoki ezinezkoa delako, ordaintzera behartuta dagoen pertsonaren diruzaintza-egoera medio.

2.º El aplazamiento o fraccionamiento se solicitará por la imposibilidad económica de realizar el pago en el momento actual debido a la situación de tesorería de la persona obligada al pago.



3. Atzeratzeko edo zatikatzeko eskaera UDATEn egin beharko du ordaintzera behartuta dagoen pertsonak, eta, hala badagokio, bere egoera ekonomikoa erakusteko behar diren dokumentuak aurkeztuko ditu.

Eskaerak honako datu eta dokumentu hauek bildu beharko ditu nahitaez:

a) Izen-abizenak, sozietatearen izena, NAN edo IFZ eta helbide fiskala.

b) Zorraren kontzeptua, urtea eta zenbatekoa adierazita.

c) Geroratzeko edo zatikatzeko epeak.

d) Eskaera egiteko arrazoiak.

e) Udalaren Zerga Bilketako Zerbitzuak adierazitako kasu, modu eta kopuruko bermea jartzeko konpromisoa.

4. Geroratzea edo zatikatzea ematea aukerakoa izango da.

5. Geroratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze-interesa sortuko du.

6. Bermeak eta emateko irizpideak.

Geroratzeko edo zatikatzeko gehieneko epeak, bermeak eta eman beharreko aurrerakina 2. eranskinean daude finkatuta.

Salbuespen gisa, beste irizpide batzuk erabili ahal izango dira konkurtso-prozeduretan, beste erakunde batzuekin batera; hala nola Foru Aldundiarekin, Gizarte Segurantzarekin edo antzeko beste erakunde batzuekin batera."

Aldizkako mugaeguna eta jakinarazpen kolektiboa duten ordainagiritarako sistema berezi bat gehitzea proposatzen da. Sistema horrek izapideak murrizten

3.º La solicitud de aplazamiento o fraccionamiento debe formularla la persona obligada al pago en UDATE, y aportará, en su caso, los documentos necesarios para apreciar la situación económica.

La solicitud contendrá necesariamente los siguientes datos y documentos:

a) Identificación con el nombre y apellidos, razón social o denominación, DNI o NIF y domicilio fiscal.

b) Concepto de la deuda con indicación del año y su importe.

c) Plazos del aplazamiento o fraccionamiento

d) Causas que motivan la solicitud.

e) Compromiso de formalizar la garantía en los supuestos, en la forma y cuantía que la Recaudación Municipal señale.

4.º La concesión de aplazamiento o fraccionamiento será discrecional.

5.º El aplazamiento o fraccionamiento devengará el interés de demora vigente.

6.º Garantías y criterios de concesión.

Los plazos máximos de aplazamiento o fraccionamiento, las garantías y el anticipo a aportar quedan fijados en el anexo 2.

Excepcionalmente, se podrán utilizar otros criterios en procedimientos concursales, conjuntamente con otras Entidades como Diputación Foral, Seguridad Social o entidades de carácter análogo."

Se propone añadir un sistema especial para aquellos recibos que son de vencimiento periódico y notificación colectiva. Este sistema reduce los



ditu, eta berehala erantzuten zaio eskaerari,

trámites y la contestación a la solicitud es inmediata.

Ordainketa zatikatuko sistema berezia.
Aldizkako mugaeguna eta jakinarazpen kolektiboa duten ordainagiriak.

Sistema especial de pago fraccionado.
Recibos de vencimiento periódico y notificación colectiva.

Sistema hau aldizkako mugaeguna eta jakinarazpen kolektiboa duten ordainagiriarentzako ezartzen da, hemen adieraziko ditugun kontzeptuetan eta baldintzetan:

Este sistema se establece para los recibos de vencimiento periódico y notificación colectiva, de los conceptos y en las condiciones y términos que se indican a continuación:

1.- Kontzeptuak.

- Trakzio Mekanikoko Ibilgaluen gaineko Zerga.
- Hiri- eta Landa-izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
- Hondakinak biltzeko eta ezabatzeko zerbitzua.

1.- Conceptos.

- Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.
- Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza urbana y rústica.
- Servicio de recogida y eliminación de residuos.

2.- Eskakizunak.

2.- Requisitos.

2.1. Orokorrak:

2.1. Generales:

- Prozedura interesdunak (ordainagiriaren titularrak edo haren legezko ordezkariak) eskatuta hasten da.
- Ordainketa zatikatuko sistema bereziari atxiki ahal izango zaizkio **100 euro** edo gehiagoko ordainagiriak.
- Ordainagiriak borondatez ordaintzeko aldiaren epean egon behar du.
- Sistemak zergaldi bakar batean ditu ondorioak.
- Eskaera egiten duen pertsonak ezin du ordaindu gabeko zorrik eduki epe exekutiboan.
- Sistema hori ezartzeko garaian, kontuan hartuko da ordainagiri baten zenbatekoa, eta ez ordaintzera derrigortutako pertsonak kontzeptu bakoitzagatik izan ditzakeen ordainagiri batzuen batura.
- Ordainagiri berrietan adierazitako ordainketa-epea amaitu aurretik egin behar da ordainketa.

- El procedimiento se inicia a solicitud de la persona interesada (titular de los recibos o su representante legal).
- Son susceptibles de acogerse al sistema especial de pago fraccionado los recibos cuyo importe sea igual o mayor a **100 euros**.
- El recibo debe encontrarse en periodo voluntario de pago.
- El sistema surte efectos en un único periodo impositivo.
- La persona solicitante no debe tener deuda pendiente de pago en periodo ejecutivo.
- El tratamiento para adopción de este sistema lo es en base al importe de un recibo y no a la suma de varios recibos que pueda tener por cada concepto la persona obligada al pago.
- El pago se efectuará antes del fin del plazo de pago indicado en los nuevos recibos.



2.2. Espezifikoak:

a) Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga.

Zatiak: 3

Ordaintzeko azken eguna: maiatzak 15/ekainak 15/uztailak 15

b) Hiri- eta Landa-izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.

Zatiak: 3

Ordaintzeko azken eguna: abuztuak 15/irailak 15/urriak 15

c) Hondakinak biltzeko eta ezabatzeko zerbitzua.

Zatiak: 3

Ordaintzeko azken eguna: abuztuak 15/irailak 15/urriak 15

2.2. Específicos:

a) Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.

Fracciones: 3

Fecha límite de pagos: 15 de mayo/ 15 de junio/ 15 de julio

b) Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza urbana y rústica.

Fracciones: 3

Fecha límite de pagos: 15 de agosto/ 15 de septiembre/ 15 de octubre

c) Servicio de recogida y eliminación de residuos.

Fracciones: 3

Fecha límite de pagos: 15 de agosto/ 15 de septiembre/ 15 de octubre

3.- Eskaerak

Ordainketa egin behar duen pertsonak edo haren ordezkariak ordainketa zatikatuko sistema berezia aukeratu beharko du inprimaki espezifikoan, ordainagiriaren borondatezko epea amaitu baino lehen.

4.- Ondorioak eta balioa.

Eskaerari baietza ematen bazaio, zatikatutako ordainketa-sistema hau **berandutze-interesik gabe** eta bermea jartzeko beharrik gabe ematen dela ulertuko da.

5. Ordainketak egiteko aurreikusitako egunetan zatiren bat ez ordaintzeak dituen ondorioak.

Zatikako ordainketaren sistema zatiak

3.- Solicitudes

La persona obligada al pago o su representante deberá acogerse al sistema especial de pago fraccionado en el impreso específico, antes de la finalización del periodo voluntario del recibo.

4.- Efectos y validez.

En caso de concesión, este sistema de pago fraccionado se entiende concedido **sin interés de demora** ni necesidad de depósito de garantía.

5.- Consecuencias del impago de alguna de las fracciones en las fechas de pago previstas.

Este sistema de pago fraccionado



mugaegunean ordaintzera baldintzatu geratzen da. Ordainketa gauzatuko ez balitz, ordaindu gabeko zatiaren exekuzioaldiari hasiera emango zaio.

especial queda supeditado al cumplimiento del pago de las fracciones a su vencimiento. Si no hiciera efectivo el pago, se iniciará el periodo ejecutivo por la fracción impagada.

Hirugarren aldaketa:

Tercer cambio:

Premiamenduzko errekaru murriztua % 15etik %5era pasa denez, ordenantza orokorreko 16.3 artikulua aldatzea.

El recargo de apremio reducido ha bajado del 15% a 5%, por lo que se propone cambiar el artículo 16.3 que dice:

Gaur egun honela dago:

3. Premiamenduzko errekaru murriztua % 15ekoa izango da, eta aplikatuko da borondatezko epean ordaindu ez den zorra eta errekarua bera ordaintzen denean epe bateko epea amaitu aurretik, haiek jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

“16.3. El recargo de apremio reducido será del 15 por 100 y se aplicará cuando se satisfaga la totalidad de la deuda no ingresada en período voluntario y el propio recargo antes de la finalización de un mes a partir del día siguiente al de su notificación.”

Honela jartzea proposatzen da:

«3. Premiamenduzko errekaru murriztua % 5ekoa izango da, eta aplikatuko da borondatezko epean ordaindu ez den zorra eta errekarua bera ordaintzen denean epe bateko epea amaitu aurretik, haiek jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.»

Se propone cambiar a:

“16.3. El recargo de apremio reducido será del 5 por 100 y se aplicará cuando se satisfaga la totalidad de la deuda no ingresada en período voluntario y el propio recargo antes de la finalización de un mes a partir del día siguiente al de su notificación.”

BIGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jartzea, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko litzateke.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkako botoa: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.



Beraz, Udalbatzak gehiengoz hasierako onarpena eman dio 2022. urterako, ordenantza fiskal honen aldatetari: Ordenantza orokorra, zergak eta zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko.

3. HASIERAKO ONARPENA EMATEA, 2022. URTERAKO, ORDENANTZA FISKAL HONEN ALDAKETARI: ONDASUN HIGIEZINEI BURUZKO ZERGA ERREGULATZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

**ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2021EKO
IRAILAREN 22KO IRIZPENA**

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2021eko irailaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen aztertu eta bozkatu ondoren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso eta Jose Mari Villanueva Telleria,

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin eta Aitana Amondarain Eskisabel.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- 2022. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriotarako eta Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailean 5eko 11/1989 zenbakidun Arau Forala erabilia behean agertzen diren ordenantzen aldatetei hasierako onarpena ematea proposatzen da.

**ONDASUN HIGIEZINEI BURUZKO
ZERGA ERREGULATZEN DUEN
ORDENANTZA FISKALA**

**ORDENANZA FISCAL REGULADORA
DEL IMPUESTO SOBRE BIENES
INMUEBLES**

Familia ugariak hobaria dute Ondasun Higiezen gaineko Zergan. Gaur egun

Las familias numerosas tienen una bonificación en el Impuesto de Bienes



arte, ondorengo dokumentazioa eskatzen zitzaien:

8.2 art:

“... eta eskariarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira: familia ugariaren izaera egiaztatzen duen agiria eta Tolosako Zerga Bulegoak emandako ziurtagiria, egiaztatzen duena titularraren eta onuradunen ohiko bizilekuaz gain, beste inolako higiezinik ez dutela. Bi agiriok behar bezala eguneratuta egon behar dute.”

Dokumentu horiek udalak lortu ditzake, beraz, herritarrek ez dute dokumentazio hori aurkeztu behar.

Bestalde, gaur egun hau jartzen du:

«Tramiteak errazteko, eskaera ez da urtero egin behar izango.»

Ondorengo eranstea proposatzen da:

«Tramiteak errazteko, aurreko urtean hobaria lortu dutenek ez dute eskaera egin behar. Aurreko urtean hobaria ez bazitzaion eman, eskaera berriz egin behar du.»

Etxebizitza hutsen errekaruaren inguruan, gaur egun ondorengo dio:

«g) Modu jarraituan lanbide nahiz merkataritza jardueretarako erabiltzen direnak.»

Ondorengo proposatzen da:

«g) Modu jarraituan lanbide nahiz merkataritza jardueretarako erabiltzen direnak urtarilaren 1ean edo aurreko urteko bigarren sei hilabeteetan.»

Gaur egun, beste salbuespen hau dago:

Inmuebles. Hasta hoy en día, se les pedía la siguiente documentación:

Art. 8.2:

“...y deberá acompañarse del documento acreditativo de la titularidad de familia numerosa, y del certificado de bienes, emitido por la Oficina Tributaria de Tolosa, de la no posesión de otro inmueble distinto del de la residencia habitual de la persona titular y de las personas beneficiarias, ambos debidamente actualizados.”

Esos documentos los puede conseguir el Ayuntamiento, por lo que los ciudadanos no tienen que presentar esa documentación.

Por otra parte, hoy en día tenemos:

Para la simplificación de los trámites, las personas que han sido beneficiarias de la bonificación el año anterior no tendrán que renovar la solicitud.

Se propone añadir lo siguiente:

Para la simplificación de los trámites, las personas que han sido beneficiarias de la bonificación el año anterior no tendrán que renovar la solicitud. Si el año anterior la solicitud fue denegada, tendrán que renovar la solicitud otra vez.

En cuanto al recargo de vivienda vacía, hoy en día dice:

“g) Las que se utilizan de modo continuado para actividades mercantiles o profesionales.”

Se propone:

“g) Las que se utilizan de modo continuado para actividades mercantiles o profesionales el día 1 de enero o el segundo semestre del año anterior.”

Hoy en día, está la siguiente exención:



«k) Adinagatik (85 urte baino gehiago eta 18 baino gutxiago) edo egiaztatutako mendekotasunagatik hutsik geratu den etxebizitza, erroldatutako pertsona aldatu behar bada beste etxebizitzara, dela mendeko pertsonarena, dela familiaren inguruko zaintzaile ez profesionalarena.

Kasu honetan, hori justifikatzen duen mendekotasunaren balorazioa behar da, organo eskudunak egina. Balorazio hori ez da eskatuko mendeko pertsonal 85 urte beteak baditu zergaren sortzapen-egunean.

Gainera beharrezkoa izango da egiaztatzea, dagokion errolda-ziurtagiriaren bidez, mendeko pertsona eta zaintzailea etxebizitza berean daudela erroldatuta.»

Puntu hori honela geratzea proposatzen da:

«Egiaztatutako mendekotasunagatik hutsik geratu den etxebizitza, erroldatutako pertsona aldatu behar bada beste etxebizitzara, dela mendeko pertsonarena, dela familiaren inguruko zaintzaile ez profesionalarena.

Kasu honetan, hori justifikatzen duen mendekotasunaren balorazioa behar da (gutxienez 1. maila), eskumeneko organoaren administrazio ebapenaren bidez, otsailaren 11ako 174/2011 Errege Dekretuan oinarrituz.

85 urte baino gehiagoko pertsonak ez dute balorazio hau beharko.

Gainera beharrezkoa izango da egiaztatzea, dagokion errolda-ziurtagiriaren bidez, mendeko pertsona eta zaintzailea etxebizitza berean daudela erroldatuta.»

“k) la vivienda que haya quedado vacía por motivos de edad mayores de 85 y menores de 18, dependencia acreditada, y que requiera el traslado de la persona empadronada a otra vivienda, bien de la persona dependiente o de la persona cuidadora no profesional del entorno familiar.

Este supuesto requerirá de valoración de la dependencia justificativa, emitido por el órgano competente. Esta valoración no se exigirá cuando la persona dependiente haya cumplido 85 años en el momento del devengo del impuesto.

Además será necesario que se acredite, mediante el correspondiente certificado de empadronamiento, que dependiente y cuidador se encuentran empadronados en la misma vivienda.”

Se propone que este punto quede de la siguiente manera:

“k) la vivienda que haya quedado vacía por motivos de dependencia acreditada, y que requiera el traslado de la persona empadronada a otra vivienda, bien de la persona dependiente o de la persona cuidadora no profesional del entorno familiar.

Este supuesto requerirá de valoración de la dependencia (mínimo grado 1), reconocida por resolución administrativa de órgano competente, en virtud del Real Decreto 174/2011 de 11 de febrero.

Las personas mayores de 85 años no requerirán dicha valoración.

Además será necesario que se acredite, mediante el correspondiente certificado de empadronamiento, que dependiente y cuidador se encuentran empadronados en la misma vivienda.”



Gaur egun, «I» atalak honela dio:

l) Denboraldi batean bizitzeko diren etxebizitzak, titularra Gipuzkoatik kanpo bizi bada. Etxebizitza denboraldi batean bizitzeko erabiltzen dela ulertuko da, egiaztatzen bada urtean gutxienez 230 kWh-ko kontsumo baliokidea dagoela. Hori horrela dela egiaztatu behar da aurkezturik, edo kontsumo elektrikoaren fakturak edo gasarenak, zergaren sortzapen-egunaren aurreko urteari dagozkionak.”

Honela jartzea proposatzen da:

l) Denboraldi batean bizitzeko diren etxebizitzak, titularra Tolosatik kanpo bizi bada. Etxebizitza denboraldi batean bizitzeko erabiltzen dela ulertuko da, egiaztatzen bada urtean gutxienez 230 kWh-ko kontsumo baliokidea dagoela. Hori horrela dela egiaztatu behar da aurkezturik, edo kontsumo elektrikoaren fakturak edo gasarenak, zergaren sortzapen-egunaren aurreko urteari dagozkionak.”

Beste salbuespen bat ezartzea proposatzen da:

m) Zaintza partekatuko erregimenaren kasuan, habia-etxean edo seme-alaben helbide finkoan, bai habia-etxebizitza, bai gurasoek okupatzen dituzten etxebizitzak

Zerga tipoari dagokionez, balore katastralaren igoera jakin behar dugu, kuota %2,5 igotzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundian kontsulta egin da, baina oraindik ez dakite ze igoera jasango duten balore katastralak. Hori dela eta, proposamena da balore katastralaren aldaketaren arabera, erreziboak %2,5ko igoera jasan dezaten, tipoa aldatzea.

Hoy en día, el apartado “I” dice:

“l) Las viviendas destinadas a residencia temporal, cuando el titular resida fuera de Gipuzkoa.

Se entenderá que la vivienda se destina a residencia temporal cuando se acredite un consumo equivalente anual de energía mínimo de 230kwh. Esta circunstancia se acreditará mediante la presentación de las facturas con consumos eléctricos o de gas del año inmediatamente anterior a la fecha de devengo del impuesto.”

Se propone modificar de la siguiente manera:

l) Las viviendas destinadas a residencia temporal, cuando el titular resida fuera de Tolosa.

Se entenderá que la vivienda se destina a residencia temporal cuando se acredite un consumo equivalente anual de energía mínimo de 230kwh. Esta circunstancia se acreditará mediante la presentación de las facturas con consumos eléctricos o de gas del año inmediatamente anterior a la fecha de devengo del impuesto.

Se propone añadir una nueva exención del recargo:

m) en caso de régimen de custodia compartida en casa nido o con domicilio fijo de los hijos, tanto la vivienda nido como las viviendas que ocupen los progenitores.

En cuanto al tipo impositivo, necesitamos saber el incremento del valor catastral para que las cuotas suban un 2,5%. Se ha hecho la consulta en la Diputación Foral de Gipuzkoa, pero todavía no saben que incremento van a sufrir los valores catastrales. Por lo tanto, se propone cambiar el tipo impositivo, en función de la variación del valor catastral, de manera que los recibos aumenten en



un 2,5 %.

BIGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jartzea, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko litzateke.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkako botoa: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz hasierako onarpena eman dio 2022. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari: ondasun higiezinari buruzko zerga erregulatzen duen ordenantza fiskala.

4. HASIERAKO ONARPENA EMATEA, 2022. URTERAKO, ORDENANTZA FISKAL HONEN ALDAKETARI: TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

EHBILDU UDAL TALDEAREN EMENDAKINA

2022rako Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen Gobernuaren Ordenantza Fiskalen aldaketa proposamenaren aurrean Tolosako EH Bildu udal taldeak aurkeztu duen emendakina berri eman zaie udalbatzarkidei.

Honela dio:

*“Trakzio mekanikoko ibilgailuen zergan, zaldi fiskal eta c.c kopuruaren arabera, koefizientea ere progresiboki aplikatzea. Tarifak progresiboak diren arren, progresibitate hori ere **turismo eta motorrei zaldi fiskal eta c.c haundiagoa dutenei koefiziente haundiagoa aplikatzea.**”*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia



Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Aurkako botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **ez du onartu** EHBildu taldeak aurkeztu duen emendakina.

ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2021EKO IRAILAREN 22KO IRIZPENA

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2021eko irailaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen aztertu eta bozkatu ondoren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso eta Jose Mari Villanueva Telleria,

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin eta Aitana Amondarain Eskisabel.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- 2022. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriotarako eta Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailen 5eko 11/1989 zenbakidun Arau Forala erabilia behean agertzen diren ordenantzen aldaketei hasierako onarpena ematea proposatzen da.

**TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN
GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN
ORDENANTZA FISKALA**

**ORDENANZA FISCAL REGULADORA
DEL IMPUESTO VEHÍCULOS DE
TRACCIÓN MECÁNICA**

2.e) artikulua zergaren salbuespenari

El art. 2.e) se refiere a la exención del



buruzkoa, mugikortasun murriztua dutenenentzako egokitutako ibilgailuei dagokiona, foru araura egokitu behar da. Ondorengo jarri behar da:

“Aurreko a) eta b) letretan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuko A egoeran badaude 1.971/1999 Errege Dekretuak 3. eranskinean jasotzen duen baremoaren arabera, 14 zaldi fiskaleko muga ez zaie aplikatuko, baldin eta ibilgailua gurpil aulkia eramateko egokituta badago.

Salbuetsita daude, baita ere, guraso-ahal, tutoretza edo kuradoretza dela-eta ardurapean minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duen pertsona bat duten pertsonen jabetzako ibilgailuak. Ibilgailu bat baino gehiago badute jabetzan, ibilgailu bakarrak izango du salbuespena.”

Ibilgailu historikoek edo 30 urteko antzintasuna dutenek %50eko hobaria dute. Hobaria ofizioz ematea proposatzen da.

Hobariak lortzeko, hainbat dokumentazio eskatzen da orain arte. Dokumentazio hori udalak lor dezake, beraz, herritarrei ez eskatzea proposatzen da.

10. artikulua ondorengo dio:

10. artikulua.- Zerga honi lotutako ibilgailuen titularrek beharrezko tramiteak egin beharko dituzte Trafiko Buruzagitzan zirkulazio baimenean agertzen den helbidea beren ohiko egoitzakoa izan dadin.

Gaur egun, tramite hau Tolosako udalean egin daiteke. Artikulua honela geratuko da:

Impuesto a los vehículos de movilidad reducida. Siguiendo la norma foral, hay que añadir lo siguiente:

“A las personas incluidas en las letras a) y b) anteriores que se encuentren en situación carencial de movilidad reducida calificada con la letra A en el baremos que figura como Anexo 3 del mencionado Real Decreto 1971/1999, no les será de aplicación el límite de 14 caballos fiscales, siempre que el vehículo se encuentre adaptado para el uso con silla de ruedas.

Quedarán también exentos del impuesto los vehículos cuyos titulares acrediten que tiene a su cargo, por razón de patria potestad, tutela o curatela, a alguna persona con un grado de minusvalía igual o superior al 65 %. De ser titulares de más de un vehículo, la exención sólo se aplicará a uno.”

Los vehículos históricos o aquellos que tengan una antigüedad mínima de treinta años, gozan de una bonificación del 50 %. Se propone conceder esta bonificación de oficio.

Para obtener ciertas bonificación, se solicitan diferente documentación. El ayuntamiento puede obtener esta documentación, por lo que se propone no pedir al ciudadano.

El artículo 10 dice:

Artículo 10. Las personas titulares de vehículos objeto de este tributo deben tramitar en la Jefatura de Tráfico la adecuación del domicilio que conste en el permiso de circulación al de su residencia habitual.

Actualmente, este trámite se puede hacer también en el Ayuntamiento de Tolosa. El artículo quedará de la siguiente manera.



10. artikulua.- Zerga honi lotutako ibilgailuen titularrek beharrezko tramiteak egin beharko dituzte Trafiko Buruzagitzan edo Tolosako udalean zirkulazio baimenean agertzen den helbidea beren ohiko egoitzakoa izan dadin.

Artículo 10. Las personas titulares de vehículos objeto de este tributo deben tramitar en la Jefatura de Tráfico o en el Ayuntamiento de Tolosa la adecuación del domicilio que conste en el permiso de circulación al de su residencia habitual.

Igoera %2,5koa da.

El incremento es del 2,5 %.

ERANSKINA/ANEXO

IBILGAILU MOTA ETA POTENTZIA	POTENCIA Y CLASE DE VEHÍCULO	KUOTA 2021	KUOTA KOEFIZIENTE	
			2022	EA 2022
A)TURISMOAK	A) TURISMOS			
9 zaldi fiskal bitartekoak	- De menos de 9 c.f.	45,70	46,85	2,55
9 – 11,99 zaldi f. Bitartekoak	- de 9 hasta 11,99 c.f.	91,40	93,70	2,55
12 – 13,99 zaldi f. Bitartekoak	- de 12 hasta 13,99 c.f.	152,35	156,15	2,55
14 – 15,99 zaldi f.bitartekoak	- de 14 hasta 15,99 c.f.	213,25	218,60	2,55
16 – 19,99 zaldi f.bitartekoak	- de 16 hasta 19,99 c.f.	274,20	281,05	2,55
20 zaldi fiskaletik gorakoak	- de 20 c.f. en adelante	335,10	343,50	2,55
B)AUTOBUSAK :	B) AUTOBUSES			
21 plaza bitartekoak	- De menos de 21 plazas	198,25	203,20	2,44
21 - 50 plaza bitartekoak	- de 21 a 50 plazas	282,35	289,40	2,44
50 plazatik gorakoak	- de más de 50 plazas	353,00	361,85	2,44
C)KAMIOIAK:	C) CAMIONES			
1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria	- De menos de 1000kg.carga util	100,65	103,15	2,44
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e.	- de 1000 a 2999 kgs. Carga útil	198,25	203,20	2,44
2.999 - 9.999 kg. bitarteko k.e.	- de más de 2999 a 9999 Kgs. Carga útil	282,35	289,40	2,44
9.999 kg-tik gorako k.e	- de más de 9999 Kgs. Carga útil	353,00	361,85	2,44
D)TRAKTOREAK	D) TRACTORES			
16 zaldi fiskal bitartekoak	- De menos de 16 c.f.	42,05	43,10	2,44
16 – 25 zaldi f. bitartekoak	- de 16 a 25 c.f.	66,10	67,75	2,44
25 zaldi fiskaletik gorakoak	- de más de 25 c.f.	198,25	203,20	2,44
E) TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN ATOI ETA ERDI-ATOIAK	E)REMOLQUES Y SEMIRREMOLQUES ARRASTRADOS POR VEHICULOS DE TRACCION MECÁNICA			
750-1000kg.bitarteko karga erabilgarria	- de menos de 1000 y más de 750 Kg. carga útil	42,05	43,10	2,44
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e.	- de 1000 a 2.999 kgs.carga útil	66,10	67,75	2,44
2.999 kg.tik gorako karga e.	- de más de 2.999 kgs. " "	198,25	203,20	2,44
F)GAINERAKO IBILGAILUAK	F) OTROS VEHICULOS			
Ziklomotoreak	- Ciclomotores	10,75	11,00	2,44
Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak	- Motocicletas hasta 125 c.c.	10,75	11,00	2,44
Motozikletak 125 - 250 z.k. bitartekoak	- Motoc.de más de 125 hasta 250 c.c.	18,35	18,80	2,44
Motozikletak 250 - 500 z.k. bitartekoak	- Motoc.de más de 250hasta 500 c.c.	38,55	39,50	2,56
Motozikletak 500 - 1.000 z.k. bitartekoak	- Motoc.de más de 500hasta 1000 c.c.	77,10	79,05	2,56
Motozikletak 1.000 cctik gora	- Motoc.de más de 1.000 c.c.	154,20	158,05	2,56

BIGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jartzea, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko litzateke.



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkako botoa: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, udalbatzak gehiengoz hasierako onarpena eman dio 2022. urterako, ordenantza fiskal honen aldatetari: trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

5. HASIERAKO ONARPENAREN EMATEA, 2022. URTERAKO, ORDENANTZA FISKAL HONEN ALDAKETARI: ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

**ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2021EKO
IRAILAREN 22KO IRIZPENA**

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2021eko irailaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen aztertu eta bozkatu ondoren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso eta Jose Mari Villanueva Telleria,

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin eta Aitana Amondarain Eskisabel.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari:



IRIZPENA

LEHENA.- 2022. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriotarako eta Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailen 5eko 11/1989 zenbakidun Arau Forala erabilia behean agertzen diren ordenantzen aldaketei hasierako onarpena ematea proposatzen da.

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN ORDENANZA FISCAL REGULADORA GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN DEL IMPUESTO SOBRE ORDENANTZA FISKALA CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS

Foru Araura egokitzeko, gaur egun dauden bi hobari kendu behar dira: Para la adecuación de la Norma Foral, se propone quitar dos bonificaciones actuales:

«2. “Nekazari Profesional” eta “Nagusiki Nekazari” kalifikazioa dutenenentzat, % 95eko hobaria. 2.º 95 % de bonificación para los que tienen la calificación de “Agricultor/a profesional” o “Principalmente agricultor/a”.

3. “Lanaldi partzialeko nekazari” kalifikazioa dutenenentzat, % 50eko hobaria.» 3.º 50 % de bonificación para quienes tienen la calificación de “jornada parcial de agricultor/a”.

Bestalde, nekazaritzako eta abelazkuntzako ustiapenerako baina ez diren obrak eta horrekin lotuta dauden ondasun higiezinako obretako zerga tipoa %2tik %1era jeistea proposatzen da. Por otro lado, las obras destinadas exclusivamente a explotaciones agropecuarias y bienes inmuebles vinculadas a la misma tendrán un tipo del 1%, en vez del 2 %.

Azkenik, hobarien ordena aldatu egingo da foru arauaren ordenarekin bat etortzeko. Finalmente, se cambia el orden de las bonificaciones para que coincida con el orden de la norma foral.

BIGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jartzea, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko litzateke.



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkako botoa: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, udalbatzak gehiengoz hasierako onarpena eman dio 2022. urterako, ordenantza fiskal honen aldaletari: eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

6. HASIERAKO ONARPENAREN EMATEA, 2022. URTERAKO, ORDENANTZA FISKAL HONEN ALDALETARI: HIRI IZAERAKO LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

**ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2021EKO
IRAILAREN 22KO IRIZPENA**

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2021eko irailaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen aztertu eta bozkatu ondoren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso eta Jose Mari Villanueva Telleria,

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin eta Aitana Amondarain Eskisabel.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA



LEHENA.- 2022. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriotarako eta Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailen 5eko 11/1989 zenbakidun Arau Forala erabilia behean agertzen diren ordenantzen aldaketei hasierako onarpena ematea proposatzen da.

HIRI IZAERAKO LURREN BALIO ORDENANZA FISCAL REGULADORA
GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA DEL IMPUESTO SOBRE EL
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA INCREMENTO DE VALOR DE LOS
FISKALA TERRENOS DE NATURALEZA URBANA

%2,5 eko igoera aplikatzea proposatzen da:

	2021	2022
I <u>ALDIA-PERÍODO</u>	%	%
a) 1-5 urte artekoa – De 1 a 5 años	3,6	3,6
De conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales, artículos 43 a 50, se establecen y exigen precios públicos por la prestación del servicio de transporte municipal.

2. Artikulua.-

Ordenantza hau Udalerri osoan aplikatuko da.

Artículo 2.º

La presente Ordenanza será de aplicación en todo el término municipal.

3. Artikulua.-

Garraioa erabiltzen duten guztiek ordaindu behar dute zerbitzua.

Artículo 3.º

Estarán obligados al pago las personas que utilicen el servicio de transporte.

4. Artikulua.-

Zerbitzua erabiltzen den unean sortzen da ordaintzeko obligazioa.

Artículo 4.º

La obligación de contribuir nace desde el momento que se utiliza el servicio.

BIGARRENA.- Aldaketa hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da 2022 urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioetarako.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.



Aurkako botoa: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, udalbatzak gehiengoz hasierako onarpena eman dio 2022. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari: zerbitzuak eman edo udal jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza.

10.ITXITAKO EKITALDIETAKO ORDAINAGIRIAK ONARTZEA.

ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2021EKO IRAILAREN 22KO IRIZPENA

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten diren fakturak 2020ko ekitaldiko faktura data dute eta 2021ean jaso dira, ondorengo taulan ikusten den moduan:

HARRERA DATA	FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2021-07-01	2020-03-09	Fontaneria J.A. Ferrero	34/2020	Samaniegon hustuketak li-bratu	943,80 €

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharre dagokienez. 2020ko abenduaren 31an aipatutako obligazioak onartu gabe zeuden eta 2021eko aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura hauek onartzeko eskumena Plenoari dagokio.

Beraz, hori dena kontutan izanik, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2021eko irailaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honako hau izan da:



Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso , Jose Mari Villanueva Telleria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitana Amondarain Eskisabel eta Kristina Pelaez Errazkin.

Irizpena aho batez onartu da.

Beraz, aho batez, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen dio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

Itxitako ekitaldiko faktura hau onartzea:

HARRERA DATA	FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2021-07-01	2020-03-09	Fontaneria J.A. Ferrero	34/2020	Samaniegon hustuketak li-bratu	943,80 €

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** ditu Itxitako ekitaldietako ordainagiriak.

11.HASIERAKO ONARPENA EMATEA KONPROMISO KREDITUAK ONARTZEKO ESPEDIENTEARI.

ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2021EKO IRAILAREN 22KO IRIZPENA

Tolosako Udalak eta Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (ADIF) Empresa Erakunde Publikoak hitzarmen bat sinatu nahi dute "Proyecto de adecuación de accesibilidad e instalación de ascensores en la estación de Tolosa centro (Gipuzkoa)", gauzatu ahal izateko.



Helburua da nasen arteko irisgarritasuna erraztu, sarbide kontrolak berrantolatu, herritarrei hiri-iragazkortasuna erraztu eta oinezkoen hiriko eta geltokiko fluxuak bereiztu.

Udalak bere gain hartuko du hiriko eta geltokiko oinezkoen fluxuak bereizteko igogailuaren eta eskaileraren proiektua gauzatzeko kostuaren %50a, honi dagokion obra zuzendaritzaren zatia eta kontratuaren garapenean gerta daitezkeen gorabeherengatik %10a arteko gehikuntzak, hauek izango balira.

Proiektuaren arabera, udalak finantzatuko beharko luken zenbatekoa hau da, %10a arteko aldaketak barne:

	BEZarik gabe	BEZa	BEZa barne
Obra	279.922,83	58.783,79	338.706,62
Obra zuendaritza	21.005,40	4.411,13	25.416,53
	300.928,23	63.194,93	364.123,16
Gehikuntza (%10)	30.092,82	6.319,49	36.412,32
GUZTIRA	331.021,05	69.514,42	400.535,47

Proiektua 2022-2023 epealdian exekutatu da eta urteko banaketa ondorengo taula hauetan jasotzen da:

URTEA: 2022	BEZarik gabe	BEZa	BEZa barne
Obra	69.980,71	14.695,95	84.676,66
Obra zuendaritza	5.251,35	1.102,78	6.354,13
	75.232,06	15.798,73	91.030,79
Gehikuntza (%10)	7.523,21	1.579,87	9.103,08
GUZTIRA	82.755,27	17.378,61	100.133,87

URTEA: 2023	BEZarik gabe	BEZa	BEZa barne
Obra	209.942,12	44.087,85	254.029,97
Obra zuendaritza	15.754,05	3.308,35	19.062,40
	225.696,17	47.396,20	273.092,37
Gehikuntza (%10)	22.569,62	4.739,62	27.309,24
GUZTIRA	248.265,79	52.135,82	300.401,60

Hitzarmena sinatu aurretik, finantzaketari dagozkion zenbatekoak Udalak kreditua dagoela bermatzen duten kontabilitate-agiriak emanez bermatu beharko ditu.



Horretarako urte anitzeko gatu konpromisoak hartu behar dira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 22. artikulua xedatutakoa betez.

Konpromiso kredituen zenbateko osoa eta bere exekuziorako aurreikusten diren ekitaldien arteko banaketa hauek dira:

Konpromiso kredituak

Urtea	Zenbatekoa
2022	100.133,87
2023	300.401,60
Guztira	400.535,47

21/2003 Foru Arauaren 22. artikuluko 2. paragrafoaren arabera, etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako indarreko konpromiso kredituen zenbateko metatua ezin du izan likidatutako azken ekitaldiko sarrera arrunten % 25 baino gehiago.

2022 eta 2023rako ez dago beste konpromiso krediturik. Eta 2020ko lididazioan sarrera arruntak 25.293.448,74 euro dira.

Orduan, 2022ko konpromiso kredituak sarrera arrunten % 0,40 dira eta 2023koak %1,19. Beraz, proposatutako konpromiso kredituak bat datoz 21/2002 Foru Arauaren 22.artikulua aurreikusitakoarekin.

Bestalde, 21/2003 Foru Arauaren 22. artikuluko 4. paragrafoak adierazten du Aurrekontuek ezingo dutela konpromiso krediturik bildu, baldin eta beraien gauzatzea ekitaldian bertan edo hurrengoan hasten ez bada.

Kasu honetan ere, baldintza hau betetzen da, 2022an gauzatzen hasiko baita proiektua.

Ez du adierazten 21/2003 Foru Arauaren 22. artikulua konpromiso kredituak onartzeko zein organoak duen eskumena. Zehaztuta ez dagoenez, jarduneko kontuhartzailearen iritziz konpromiso kredituak onartzeko eskumena udalbatzari dagokio, Udal Erregimenari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.e) artikulua arabera, Udalbatzari dagokiolako aurrekontuen onarpena eta aldaketa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena aztertu da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 22. artikuluan ezarritakoarekin.

Beraz, hori dena kontutan izanik, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2021eko irailaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honakoa hau izanda da:



Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Jose Mari Villanueva Telleria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitana Amondarain Eskisabel eta Kristina Pelaez Errazkin.

Irizpena aho batez onartu da.

Beraz, aho batez, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen dio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

Lehenengoa.- Hasierako onarpena ematea Tolosako Udalak eta Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (ADIF) Enpresa Erakunde Publikoak sinatu nahi duten hitzarmenaren barnean udalak bere gain hartuko dituen obligazio ekonomikoei aurre egiteko konpromiso kredituen espedienteari.

Konpromiso kredituen zenbateko osoa eta bere exekuziorako aurreikusten diren ekitaldien arteko banaketa hauek dira:

Konpromiso kredituak

Urtea	Zenbatekoa
2022	100.133,87
2023	300.401,60
Guztira	400.535,47

Bigarrena.- Hasierako onarpenaren ondoren, espedientea jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez hasierako onarpena eman dio konpromiso kredituak onartzeko espedienteari.



12.BERRI EMATEA: 2021/1566 ALKATETZA DEKRETUA, 6/2021 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEARI DAGOKIONA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

2021/1566 Dekretuaren berri eman da. Honelaxe dio:

ALKATEAREN DEKRETUA

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2021-KALD-000006-00.

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBATZI DUT

*Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, **kapitulukako laburpen honen arabera:***

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	10.400,00
6	INBERTSIO ERREALAK	215.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		225.400,00

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	225.400,00
GUZTIRA		225.400,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboan denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Tolosa, 2021eko irailaren 21a

Alkatea

Idazkaria



Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

::: Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, EAJ-PNV taldeko zinegotziak irten egin da. Ez du parte hartu 13, eta 14. puntuen eztabaida eta bozketetan.

13.ONARTZEA KIROLZER, S.L. ENPRESAK TOLOSAKO UDALAREN KIROL INSTALAZIOEN KUDEAKETA INTEGRALAREN EMAKIDAREN OREKA EKONOMIKOA BERROREKATZEKO ESKAERA, COVID-19 KORONABIRUSAK SORTUTAK EGOERA DELA ETA.

**ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2021EKO
IRAILAREN 22KO IRIZPENA**

I.- IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Xedea	Tolosako udal-instalazioen kudeaketa integralaren emakida
Unitate sustatzailea	Kirolak Saila
Espedientea	TOLOSA LANTZEN, SA erakundetik eratorritako espedientea

II.- AURREKARIAK

Lehena.- 2005eko irailaren 1ean KIROLZER, SL eta TOLOSA LANTZEN, SA enpresen artean Tolosako udal-instalazioen kudeaketa integralaren emakida-kontratua formalizatu zen hamar urterako. Halaber, kontratu hori beste 5 urtez luzatu zen, 2020ko abuztuaren 31ra arte.

Bigarrena.- Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zen, eten egin ziren sektore publikoko erakundeen prozedurak izapidetzeko baldintzak eta epeak, eta aipatutako Errege Dekretuak edo, hala bazegokion, Errege-Dekretu horren luzapenak indarra galtzen zuten unean hasiko zen berriz epeen zenbaketa. Baldintzak eta epeak etetea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean definitutako sektore publiko osoari aplikatuko zaio, eta horien artean dago toki-administrazioa.



Hirugarrena.- COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko, 8/2020 Errege Lege Dekretuak, martxoaren 17koak, ezohiko premiazko neurri buruzkoak, zenbait neurri ezarri zituen kontratu publikoak eteteak enpleguan eta enpresa-bideragarritasunean izan ditzakeen ondorio negatiboak saihesteko. Xedapen horiek helburu zuten, batetik, ez zitezela kontratu publikoak suntsitu, eta, bestetik, administrazioek hartzen zituzten erabakiek ez zezatela egiturazko eragin negatiborik izan ekoizpen-sarearen zati horretan. Neurri horiek, oro har, SPKLren 208. artikulua berariazko aldaketa ekarri zuten, bai eta emakiden berronka ekonomikoari buruzko doktrinaren aldaketa ere, baina horien aplikazio zehatza kontratu bakoitzerako zehazki aztertu behar da.

Laugarrena.- Horiek horrela, 2020ko apirilaren 21eko 2020/599 Alkatetza Dekretuaren bidez, kontratuei buruzko instrukzioa onartu zen Tolosako Udalean, eta instrukzio hori kontratista guztiei bidali zieten kontratuen udal-arduradunek.

Bosgarrena.- Horiek horrela, TOLOSA LANTZEN, SA erakundearen administrazio kontseiluak 2020ko uztailaren 30ean egindako bileran, KIROLZER, SL enpresak egindako eskaera onartu zen. Hona hemen akta horren zati bat:

7.- AZTERTZEA KIROLZER SL ENPRESAK TOLOSAKO UDALAREN KIROL-ERAIKINEN KUDEAKETA INTEGRALERAKO KONTZESIOAREN OREKA EKONOMIKOA BERRESKURATZEKO EGIN DUEN ESKAERA, COVID-19 KRISA DELA ETA.

Teknikariak azaldu du AB20117 kirol txostena

Kontuhartzaileak azaldu du 8/2020 Errege Dekretuaren 34.4 artikuluan xedatutakoa jarraituz egindako kalkulua.

Horiek guztiak kontuan hartuta, Kontseiluko kideek, aho batez, onartu dute:

Lehena: 8/2020 Errege Lege Dekretuko 34.4 artikuluan aipatzen diren ezohiko neurriak hartzea aipatutako kontratuaren emakidadunaren berronka ekonomikoa lortzeko.

Bigarrena: Kirolzer SLk aurkeztutako Tolosako Udalaren kirol-eraikinen kudeaketa integralaren kontzesioko ustiapen-kontuaren datu ekonomikoak hasiera batean ontzat ematea luzatze kalkulua egiteko, baldin eta emakidadunak emandako datu ekonomikoak auditoretzak berresten baditu, 8/2020 Errege Lege Dekretuko 34.4 artikuluan ezarritako egiaztapen frogagarritzat hartzeko asmotan.

Hirugarrena: COVID-19 pandemiak eragindako desoreka ekonomikoa orekatzea, 2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Dekretuko 34.4 artikulua xedatzen duenaren arabera, "la ampliación de su duración inicial hasta un máximo de un 15 por 100", kontratua 16 hilabetez luzatzea, 2021eko abenduaren 31 arte. Emakidadunak aurkeztutako datu ekonomikoen arabera, ustiapen-kontuaren berronka ekonomikoa lortzeko denbora izan dezan.

Laugarrena: Interesatuari eta Tolosako Kontuhartzailtza, Kontratazio eta Kirol Sailei erabakiaren berri ematea.



Akta horretan jasotzen da emakidadunari kontratua luzatzearen erabakia, 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 30era itxita egotetik eratorritako galerak konpentsatzeko. TOLOSA LANTZEN, SA erakundeko teknikariak egindako kalkuluen arabera, galera horiek 326.414,58 eurokoak izan ziren, eta horrek kontratua 16 hilabetez luzatzeko aukera ematen zuen. Horrenbestez, **kontratua 2021eko abenduaren 31ra arte luzatu zen.**

Seigarrena.- 2020ko irailaren 24an, Udalbatzaren osoko bilkurak aho batez onartu zuen TOLOSA LANTZEN, SA erakundearen aktibo eta pasiboak Tolosako Udalaren alde lagatzea. Horren berri eman zitzaion emakidadunari legearen arabera.

Zazpigarrena.- 2020ko abenduaren 31n TOLOSA LANTZEN, SA erakundea desagertu egin zen.

Zortzigarrena.- 2021eko maiatzaren 10ean, KIROLZER, SL enpresak egindako eskaera udal-erregistroan sartu zen 2021-4755 zenbakiarekin. Bertan, honako hau eskatzen zuen:

(...)

d) *Se propone:*

De forma principal, como mecanismo de equilibrio del déficit de 2020, modificar para el año 2021 la condición económica del contrato relativa al canon fijo a abonar (294.257,52 euros) por Kirozler SL, en el sentido de reducirlo en los 160.755,12 euros aun pendientes de equilibrar, de modo que dicho canon fijo quede establecido para 2021 en la cifra de 133.502,40 euros.

Subsidiariamente a la propuesta anterior, en su caso, se propone la aportación económica a Kirozler SL por importe de 160.755,12 euros.

De uno u otro modo, debe equilibrarse el resultado de explotación de 2020.

Con base en lo expuesto, respetuosamente SOLICITO AL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA: Que, teniendo por presentado el presente escrito con sus alegaciones, y documentación adjunta, se sirva atender la reposición del equilibrio económico financiero del contrato en el ejercicio 2020 conforme los términos planteados.

III.- ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

1.- Aplikatu beharreko legeria

Tolosako udal-instalazioen emakida-kontratuaren lizitazioa onartu zenean, 2005. urtean, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 2/2000 Errege Legegintza Dekretuak agintzen zuen; beraz, lege hori izango da kontratuaren indarraldi osoan zehar aginduko duena.



2.- Kontratuaren aldaketa

Aipatu bezala, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 2/2000 Errege Legegintza Dekretuak 101. artikuluan hau zehazten du, oro har, kontratuen aldaketei buruz:

Artículo 101. Modificaciones de los contratos.

*1. Una vez perfeccionado el contrato, el órgano de contratación sólo podrá introducir modificaciones por razón de interés público en los elementos que lo integran, siempre que sean **debidas a necesidades nuevas o causas imprevistas**, justificándolo debidamente en el expediente.*

2. Las modificaciones del contrato deberán formalizarse conforme a lo dispuesto en el artículo 54.

3. En las modificaciones de los contratos, aunque fueran sucesivas, que impliquen aislada o conjuntamente alteraciones en cuantía igual o superior al 10 por 100 del precio primitivo del contrato, siempre que éste sea igual o superior a 1.000.000.000 de pesetas (6.010.121,04 euros) con exclusión del Impuesto sobre el Valor Añadido, será preceptivo, además del informe a que se refiere el apartado 2 del artículo 59 y de la fiscalización previa en los términos del apartado 2, párrafo g), del artículo 11, el informe de contenido presupuestario de la Dirección General de Presupuestos del Ministerio de Hacienda. A tal efecto, los órganos de contratación remitirán el expediente correspondiente a la modificación propuesta, al que se incorporarán los siguientes documentos:

a) Una memoria explicativa suscrita por el director facultativo de la obra que justifique la desviación producida que motiva la modificación, con expresión de las circunstancias no previstas en la aprobación del pliego de prescripciones técnicas y, en su caso, en el proyecto correspondiente, documento que será expedido, en los contratos distintos a los de obras, por el servicio encargado de la dirección y ejecución de las prestaciones contratadas.

b) Justificación de la improcedencia de la convocatoria de una nueva licitación por las unidades o prestaciones constitutivas de la modificación.

c) En los contratos de obras, informe de la Oficina de Supervisión de Proyectos sobre la adecuación de la modificación propuesta.

La Dirección General de Presupuestos emitirá su informe en el plazo de quince días hábiles.

Lo establecido en este apartado será también de aplicación en las modificaciones consistentes en la sustitución de unidades objeto del contrato por unidades nuevas en contratos cuyo importe de adjudicación sea igual o superior a 1.000.000.000 de pesetas (6.010.121,04 euros) y las modificaciones afecten al 30 por 100 o más del precio primitivo del contrato, con exclusión del Impuesto sobre el Valor Añadido, independientemente de las repercusiones presupuestarias a que dieran lugar las modificaciones.

Bertan aipatzen den 59. artikulua hau zehazten du administrazioaren eskumenei buruz:



1. Dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos señalados en la presente Ley, el órgano de contratación ostenta la prerrogativa de interpretar los contratos administrativos, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlos por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta. Los acuerdos correspondientes pondrán fin a la vía administrativa y serán inmediatamente ejecutivos. En el correspondiente expediente se dará audiencia al contratista. 2. En la Administración General del Estado, sus organismos autónomos, las entidades gestoras y servicios comunes de la Seguridad Social y demás entidades públicas estatales, los acuerdos a que se refiere el apartado anterior deberán ser adoptados previo informe del Servicio Jurídico correspondiente, salvo en los casos previstos en los artículos 41 y 96.3. No obstante lo anterior, será preceptivo el informe del Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente de la Comunidad Autónoma respectiva en los casos de: a) Interpretación, nulidad y resolución, cuando se formule oposición por parte del contratista. b) Modificaciones del contrato, cuando la cuantía de las mismas, aislada o conjuntamente, sea superior a un 20 por 100 del precio primitivo del contrato y éste sea igual o superior a 1.000.000.000 de pesetas (6.010.121,04 euros).

Kasu honetan, ordea, kontratua aldatzeko beharra ez da sortu legeak aurreikusitako arrazoiengatik, baizik eta aurrerago azalduko dugun moduan, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zuen 2020ko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz.

3.- Alarma-egoera

2020ko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera ezarri zuenak, honako hau adierazten zuen:

- 1. Se suspenden términos y se interrumpen los plazos para la tramitación de los procedimientos de las entidades del sector público. El cómputo de los plazos se reanudará en el momento en que pierda vigencia el presente real decreto o, en su caso, las prórrogas del mismo.*
- 2. La suspensión de términos y la interrupción de plazos se aplicará a todo el sector público definido en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.*
- 3. No obstante lo anterior, el órgano competente podrá acordar, mediante resolución motivada, las medidas de ordenación e instrucción estrictamente necesarias para evitar perjuicios graves en los derechos e intereses del interesado en el procedimiento y siempre que éste manifieste su conformidad, o cuando el interesado manifieste su conformidad con que no se suspenda el plazo.*
- 4. La presente disposición no afectará a los procedimientos y resoluciones a los que hace referencia el apartado primero, cuando estos vengán referidos a situaciones estrechamente vinculadas a los hechos justificativos del estado de alarma.*



Bestalde, 2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak, COVID-19ren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzkoak, honako hau dio kontratazio publikoari buruzko 34. artikuluan:

Artículo 34. Medidas en materia de contratación pública para paliar las consecuencias del COVID-19.

(...)

*4. En los contratos públicos de concesión de obras y de concesión de servicios vigentes a la entrada en vigor de este real decreto-ley, celebrados por las entidades pertenecientes al Sector Público en el sentido definido en el artículo 3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, la situación de hecho creada por el COVID-19 y las medidas adoptadas por el Estado, las comunidades autónomas o la Administración local para combatirlo darán derecho al concesionario al **restablecimiento del equilibrio económico del contrato mediante, según proceda en cada caso, la ampliación de su duración inicial hasta un máximo de un 15 por 100 o mediante la modificación de las cláusulas de contenido económico incluidas en el contrato.***

Dicho reequilibrio en todo caso compensará a los concesionarios por la pérdida de ingresos y el incremento de los costes soportados, entre los que se considerarán los posibles gastos adicionales salariales que efectivamente hubieran abonado, respecto a los previstos en la ejecución ordinaria del contrato de concesión de obras o de servicios durante en el período de duración de la situación de hecho creada por el COVID-19. Solo se procederá a dicha compensación previa solicitud y acreditación fehaciente de la realidad, efectividad e importe por el contratista de dichos gastos.

La aplicación de lo dispuesto en este apartado solo procederá cuando el órgano de contratación, a instancia del contratista, hubiera apreciado la imposibilidad de ejecución del contrato como consecuencia de la situación descrita en su primer párrafo y únicamente respecto de la parte del contrato afectada por dicha imposibilidad.

(...)

7. A los efectos de este artículo sólo tendrán la consideración de «contratos públicos» aquellos contratos que con arreglo a sus pliegos estén sujetos a: la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014; o al Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público; o a la Ley 31/2007, de 30 de octubre, sobre procedimientos de contratación en los sectores del agua, la energía, los transportes y los servicios postales; o Libro I del Real Decreto-ley 3/2020, de 4 de febrero, de medidas urgentes por el que se incorporan al ordenamiento jurídico español diversas directivas de la Unión Europea en el ámbito de la contratación pública en determinados sectores; de seguros privados; de planes y fondos de pensiones; del ámbito tributario y de litigios fiscales; o a la Ley 24/2011, de 1 de agosto, de contratos del sector público en los ámbitos de la defensa y de la seguridad.

También tendrán la consideración de “contratos públicos” los contratos de obras, los contratos de servicios o consultorías y asistencias que sean complementarios a un contrato de obras principal y necesarios para la correcta realización de la prestación, así



como los contratos de concesión, ya sean de obras o de servicios, incluidos los contratos de gestión de servicios públicos; celebrados por las entidades pertenecientes al Sector Público en el sentido definido en el artículo 3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre; siempre que estén vigentes a la entrada en vigor de este real decreto ley y cualquiera que sea la normativa de contratación pública a la que estén sujetos con arreglo al pliego. En estos contratos, no resultará de aplicación a las suspensiones a que se refiere el presente artículo, además de las disposiciones señaladas en sus apartados 1 y 3, lo dispuesto en los artículos relativos a indemnizaciones por suspensiones de contratos en la normativa de contratación pública anterior al Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, que sea aplicable a los mismos, ni aquellas indemnizaciones por suspensión previstas en los pliegos de contratos en el ámbito de la normativa de contratación pública en los sectores del agua, la energía, los transportes y los servicios postales.

Arestian esan bezala, enpresak itxialdian (martxoaren 14tik ekainaren 30era) izandako galerak konpentsatzeko, kontratua 16 hilabetez luzatzea planteatu zen; horrekin, enpresak jasandako 326.414,58 euroko galerak konpentsatu ziren.

4.- Aurreikusi ezin daitekeen arriskua.

Kontzeptu hori aztertzeko, Auzitegi Gorenak taxututako esparru kontzeptuala hartu behar dugu abiapuntutzat; adibidez, 2016ko uztailaren 20ko epaia, non zehazten baita zer kasutan den bidezkoa kontratuaren finantza-berroreka konpentsazio-kalte ordain baten bidez ezartzea. Auzitegiak uste du, arrisku- eta mentura-printzipioa aplikatuz, ez dela nahikoa kontratuaren ekonomia aldatuta egotea; aitzitik, beharrezkoa da aldaketa horren arrazoa *factum principis* edo *ius variandi* erabiltzea izatea, Administrazioari egotz dakizkiokeen jardueri dagokienez, edo "aurreikusi ezineko gertakaritzat" jo daitezkeen inguruabarrei dagokienez.

Auzitegi horrek, 2008ko apirilaren 18ko epaian, aurreikusi ezin den arriskuaren doktrina aipatzen du. Aipatutako epaiak adierazi zuenez, doktrina hori *rebus sic stantibus* klausularekin lotzen badugu, honako hau eskatzen du: "Kontratua egiteko garaian aurreikusi ezin izan zen arrisku bat agertzearen ondorioz kontratua gauzatzeko baldintzak funtsean aldatzen badira, hitzartutako prestazioa alderdi batentzat hasieran aurreikusi zitekeena baino askoz garestiagoa bihurtuta".

2008ko apirilaren 25eko epaiak, era berean, aurreikusi ezinaren kontzeptua aipatzen du, eta adierazten du "*sucesos que sobrevienen con carácter extraordinario que alteran de forma muy notable el equilibrio económico y contractual existente en el momento del contrato pues sobrepasan los límites razonables de aleatoriedad que comporta toda licitación.*".

Kontratuaren inguruabarrak aldatzearen ondorio juridikoak zehazteko, Auzitegi Gorenaren arabera, Kode Zibilaren 3.2 artikuluko ekitate-printzipioak eta 7.1 artikuluko fede onaren



printzipioak aplikatu behar dira, alderdien arteko oreka ekonomiko-finantzarioaren printzipioa mugatzen duen ezohiko arrisku bat agertzen delako, baina kontratazio publikoan funtsezkoa den arriskuaren eta menturaren printzipioari aurrez aurre eraso egin gabe.

Azken batean, Auzitegi Gorenaren iritziz (2015eko maiatzaren 9ko epaia), *Rebus sic stantibus* klausula aplikatzeak honako hau eskatzen du:

- a) ezohiko aldaketa baten aurrean egotea,
- b) neurritz kanpoko proportzio baten aurrean egotea, kalkulu guztietatik kanpo, eta
- c) erabat ustekabekoak diren inguruabarrak direla medio.

Hala, aipatutako epaiak honako hau dio: "(...) *los hechos imprevisibles operan cuando está en juego la continuidad del servicio y que, de no ser así, el que rige es el principio de riesgo y ventura para el contratista; y añade que esta es la razón por la que la jurisprudencia, en orden las pérdidas del contratista, suele acudir a la doctrina de la contratación privada inherente a la cláusula rebús sic stantibus.*"

Klausula hori tresna bat da prestazioak berrerekatzea bidezkoa den ala ez erabakitzeko, eta bidezkoa da honako kasu hauetan: "*una alteración extraordinaria de las circunstancias en el momento de cumplir el contrato en relación con las concurrentes al tiempo de su celebración, b) una desproporción exorbitante, fuera de todo cálculo, entre las prestaciones de las partes contratantes que verdaderamente derrumben el contrato por aniquilación del equilibrio de las prestaciones y c) que todo ello acontezca con la sobrevenida de circunstancias radicalmente imprevisibles.*"

lido beretik, Andaluziako CCCAren 3/2016 Irizpena aipa dezakegu. Irizpen horrek aurreikusten ez den arriskua dagoela esateko kontuan hartu beharreko baldintzatzat honako hauek zehazten ditu: "*la jurisprudencia de este Tribunal Supremo y la doctrina del Consejo de Estado ha configurado los siguientes requisitos necesarios para que pueda ser apreciada la concurrencia de riesgo imprevisible: (1) Una circunstancia o riesgo imprevista y razonablemente imprevisible en el momento de celebrar el contrato; (2) Que las circunstancias sobrevenidas generen la ruptura completa del equilibrio concesional o la alteración sustancial de las condiciones de ejecución del contrato inicialmente pactadas; (3) Que la alteración del equilibrio contractual se haya producido con ausencia de culpa de las partes contratantes; y (4) Una insuficiencia de los mecanismos previstos en el contrato para la recuperación del mecanismo contractual.*"

Aipatutako teoria COVID-19aren inguruan hartutako neurriek eragindako egoerari aplikatuz, erakunde kontratatzaileak zuzenean hartzen ez dituen kasuetan, kontratua berrerekatzea eragin dezakeen aurreikusi ezinezko arrisku bat dagoela aitortu beharko litzateke, kontratua egiteko unean aurreikusi gabeko eta arrazoizko moduan aurreikusi ezin daitekeen egoera edo arrisku bat delako; betiere, oreka ekonomikoaren erabateko haustura edo funtsezko aldaketa eragiten badu. Kontratua gauzatzeko hasieran



itundutako baldintzak, eta kontratuan kontratu-oreka berreskuratzeko aurreikusitako mekanismoak nahikoak ez izatea, alderdien errurik ez dagoelako.

5.- Ondorioak

Azaldutakoa ikusita, koronabirusagatik hartutako ohiz kanpoko neurrien ondorioz gauzatzen ari diren kontratuen baldintzak aldatzeak honako hauek ekar ditzake:

a) **Kontratua etetea.** Neurriek kontratua gauzatzeari eragiten diotenean, partzialki edo osorik, eta iraupena kontuan hartuta, aldi baterako edo behin betiko, kontratazio-organoak kontratua etetea erabaki ahal izango du.

b) **Kontratua aldatzea.** Hartutako neurriek prestazioaren baldintzak aldatzen badituzte, kontratua aldatu ahal izango da SPKLren 205. artikuluan xedatutako kasuetan eta baldintzetan eta mugetan.

c) **Kontratutako prestazioa zeharka aldatzen bada**, etengabe eta aldaketarik egin behar izan gabe, honako kasu hauek har daitezke kontuan:

c.1) **Factum principis.** Erakunde kontratatzaileak nahitaezko neurriak hartzen dituenean, orokortasun- eta aurreikusezintasun-ezaugarriak betetzen dituztenak eta kontratistari kalte berezia eragiten diotenak.

c.2) **Aurreikusi ezin den arriskua.** Kontratua egiteko unean aurreikusi gabeko eta arrazoizko moduan aurreikusi ezin den egoera edo arrisku bat gertatzen denean, oreka ekonomikoa erabat haustea edo kontratua gauzatzeko hasieran hitzartutako baldintzak nabarmen aldatzea eragin duena, eta kontratuan kontratu-mekanismoa berreskuratzeko aurreikusitako mekanismoak nahikoak ez direnean, alderdi kontratugileen errurik ez dagoelako.

Halaber, hitzartutakotik kanpo eta aldean errurik gabe, eta gerora, kontratuaren oinarria edo helburua zentzuz hornitu zuten inguruabarrak sakonki aldatzen direnean, alderdien asmoak aldatu egin daitezke, eta hori, fede onaren printzipioaren arabera, espero daiteke testuinguru horretan, egindako aldaketara egokitzeko edo berrikusteko. Kasu honetan, pandemian inguruabar hauek gertatzen dira:

a.- Itundutakotik kanpo.

b.- Ez dago koronabirusaren pandemiaren eraginpean dagoenaren errurik.

c.- Ustekabean gertatu da.

d.- Ez da aurreikus zitekeen arrisku bat.

e.- Birusaren ondorioen intzidentzia garrantzitsua eta larria da.

f.- Ezohiko beligerantziaz agertu da, kontratua hitzartutakoaren arabera betetzeko ezintasuna dela eta.

g.- Fede onaren printzipioak zehazten du birusak jotakoak fede onez jokatu zuela eta ez ziola lagundu hitzartutakoa bete ezin horri.

h.- Fede onaren printzipioaren eta *rebus sic stantibus* klausularen arteko lotura hori onartu du jada Auzitegi Gorenak, besteak beste, 2009ko maiatzaren 21eko epaiaren kasuan (1178/2004 zk.).



Beraz, aurreko guztia kontuan hartuz, aurreikusi ezin izan den arrisku baten aurrean gaude kasu honetan, ez Udalak ezta kontratistak ere ez baitute inongo erabakirik hartu.

6.- Entzunaldiaren izapidea

Honi buruz, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 82.4 artikuluan hau zehazten du:

4. Se podrá prescindir del trámite de audiencia cuando no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta en la resolución otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por el interesado.

Beraz, argi dago ez dela entzunaldi-izapiderik egin, prozeduran ez baitira agertzen eta ebazpenean ez baitira kontuan hartu interesdunak azaldutako egitateak, alegazioak eta frogak baino.

Jurisprudentzia zabala dago entzunaldi-izapidea ez egiteari buruz (besteak beste, 2004ko martxoaren 3ko epaia, RC 4353/2001; 2011ko martxoaren 23ko epaia, RC 4264/2009; edo 2005eko martxoaren 16ko epaia, RC 2796/2001). Auzitegi Gorenaren ustez, entzunaldiaren izapidea ez betetzeak ez dakar, berez, interesdunaren defentsa-gabezia prozedura jakin batzuetan, eta, beraz, ez luke *per se* ekarriko erabakitako egintzaren erabateko deuseztasuna.

Jurisprudentziak bereizi egiten ditu zehapen-prozedurak eta prozedura ez-zehatzaileak. Konstituzioak 105. artikuluan jasotzen du legeak arautuko duela administrazio-egintzak gauzatzeko prozedura, eta, bidezkoa denean, interesdunari entzutea bermatuko du.

Bada, Auzitegi Gorenak zehapen-prozeduretarako ebatzi du entzunaldi-izapiderik ez izateak oinarritzko eskubidea urratzen duela, eta, beraz, erabateko deuseztasuna dakarrela. Hala ere, ez du izaera bera zehatzaileak ez diren prozeduretan; izan ere, Auzitegi Gorenaren ustez, kasu horietan entzunaldi-izapidea ez betetzeak egintza deuseztatzea ekar dezake, baina interesdunaren defentsa-gabezia gertatzen denean soilik; beraz, administrazioarekiko auzian defentsa-gabezia hori frogatu beharko du.

Kasu honetan, teknikari honen iritziz, ez da entzunaldi-izapiderik egin behar, prozeduran ez baitira agertzen eta ebazpenean ez baitira kontuan hartu interesdunak azaldutako egitateak, alegazioak eta frogak baino.

7.- Emakidadunaren onespena

Aipatu bezala, Herri Administrazioen Kontratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak 101. artikuluan hau zehazten zuen kontratuen aldaketei buruz: "2. *Las modificaciones del contrato deberán formalizarse conforme a lo dispuesto en el artículo 54.*" Eta artikulua horrek hau dio:

Artículo 54. Formalización de los contratos.

1. Los contratos de la Administración se formalizarán en documento administrativo



dentro del plazo de treinta días a contar desde el siguiente al de la notificación de la adjudicación, constituyendo dicho documento título suficiente para acceder a cualquier registro público, pudiendo, no obstante, elevarse a escritura pública cuando lo solicite el contratista, siendo a su costa los gastos derivados de su otorgamiento.

2. Salvo las excepciones establecidas en esta Ley, será requisito necesario para su formalización la prestación por el empresario de las garantías previstas en la misma como salvaguarda de los intereses públicos.

3. Cuando por causas imputables al contratista no pudiese formalizarse el contrato dentro del plazo indicado la Administración podrá acordar la resolución del mismo, siendo trámite necesario la audiencia del interesado y cuando se formule oposición por el contratista, el informe del Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente de la Comunidad Autónoma respectiva. En tal supuesto procederá la incautación de la garantía provisional y la indemnización de los daños y perjuicios ocasionados.

Si las causas de la no formalización fueren imputables a la Administración, se indemnizará al contratista de los daños y perjuicios que la demora le pueda ocasionar, con independencia de que pueda solicitar la resolución del contrato al amparo del artículo 111, párrafo d).

4. No se podrá iniciar la ejecución del contrato sin la previa formalización, excepto en los casos previstos en los artículos 71 y 72.

Beraz, aurrekoa kontuan hartuz, emakidadunari jakinarazi beharko zaio kontratazio-organoak hartutako erabakia, eta ondoren, dagokion kontratuaren aldaketa sinatu beharko da. Aldizkari Ofizialetan eta Kontratatzailearen Profilean argitaratu beharko da hori.

8.- Kontratazio-organoa

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak (2004ko urtarrilaren 1etik, 2007ko uztailaren 1 arte indarrean egon zen bertsioan) 22. artikuluan hau zehazten du udalbatzaren eskumenei buruz:

n) Las contrataciones y concesiones de toda clase cuando su importe supere el 10 por ciento de los recursos ordinarios del Presupuesto y, en cualquier caso, los seis millones de euros, así como los contratos y concesiones plurianuales cuando su duración sea superior a cuatro años y los plurianuales de menor duración cuando el importe acumulado de todas sus anualidades supere el porcentaje indicado, referido a los recursos ordinarios del presupuesto del primer ejercicio y, en todo caso, cuando sea superior a la cuantía señalada en esta letra.

Gogorarazi behar da, emakida-kontratu hau TOLOSA LANTZEN, SA erakundeak lizitatu zuela eta 2020ko irailaren 24an, Udalbatzaren osoko bilkurak aho batez onartu zuela erakundearen aktibo eta pasiboak Tolosako Udalarari lagatzea. Horrela eta 7/1985 Legeak 22 n) artikuluan xedatzen duena kontuan hartuz, **Tolosako Udaleko Udalbatza litzateke emakida-kontratu honen kontratazio-organoa.**



Beraz, hori kontuan hartuz, **beharrezkoa izango da Udaleko Antolakuntza Batzordearen irizpena, gaia osoko bilkuran eztabaidatu aurretik.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea.

IV.- EBAZPENAREN ALDAKETA

Arestian aipatu bezala, TOLOSA LANTZEN, SA erakundearen administrazio kontseiluak 2020ko uztailaren 30ean egindako bileran, KIROLZER, SL enpresak egindako eskaera onartu zen eta emakidadunari kontratua luzatu zitzaion, emakidadunak 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 30era arte izandako itxieratik eratorritako galerak konpentsatzeko. TOLOSA LANTZEN, SA erakundeko teknikariak egindako kalkuluen arabera, galera horiek 326.414,58 eurokoak izan ziren eta horrek, kontratua 16 hilabetez luzatzeko aukera ematen zuen. Horrenbestez, kontratua 2021eko abenduaren 31ra arte luzatu zen.

Egindako luzapen horren helburua zen itxialdian jasandako galerak konpentsatzea, eta horretarako, 2019. urteko zenbakien arabera, 16 hilabetean konpentsazio hori gauzatuko zela aurreikusi zen. 2021. urtean, ordea, ez da aurreikusitako errekonpentsazio-eritmorik izan eta galerak areagotu egin dira.

TOLOSA LANTZEN, SA erakundeko teknikariak egindako kalkuluen arabera, enpresak jasandako galerak 326.414,58 eurokoak izan ziren eta galdutakoa berreskuratzeko 16 hilabeteko epea finkatu zen; hau da, gutxi gorabehera 20.000 euroko konpentsazio hilean. Hori, aipatu bezala, ez da gertatu; izan ere, 2020rako berronpentsazioaren aurreikusitako mekanismoa, 2019ko datuen arabera kalkulatu, gaintu egin da; beraz, bironpentsatu egin behar da errekonpentsazio-mekanismo hori eritmo erreala aintzat hartuta, eta, ondorioz, bironpentsatu egin behar dira errekonpentsazio-epe hori eta haren osaera ekonomikoa ere.

Horrek bi ondorio ekarriko ditu: batetik, *factum principis* delakotik eratorritako galerak konpentsatu beharko dira, eta, bestetik, TOLOSA LANTZEN, SA erakundeak hartutako akordioa berronpentsatu beharko da, berronpentsatzeko mekanismoari dagokionez, errekonpentsazio-eritmoa 2021eko egoeraren errealitateara egokitzeko, eta emakidadunari egotzi ezin zaizkion arrazoiak eman baitira.

Arestian aipatu bezala, konpentsazio-mekanismoa onartu zenean, hileko 20.000 euroko errekonpentsazio-eritmoa aurreikusi zen eta horren arabera, enpresak jasandako 326.414,58 euroko galerak errekonpentsatzeko 16 hilabeteko epea finkatu zen; orain berriz, 2021. urteko errekonpentsazio-eritmoa ikusita eta egindako kalkuluen arabera, errekonpentsazio-eritmoa 10.000 eurokoa izango litzateke hilean. Beraz, 33 hilabete



(326.414,58/10.000) beharko lirateke jasandako galerak konpentsatzeko eta ez TOLOSA LANTZEN, SA erakundeak kalkulatuta bezala, 16 hilabete.

Horiek horrela, behin 16 hilabeteko luzapena egin zenez, beste 17 hilabete konpentsatu behar dira, aldameneko koadroan ikus daitekeen moduan.

Horretarako bi aukera daude: lehenengoa, kontratua berriro luzatzea eta bigarrena, konpentsazio ekonomikoa egitea kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko.

galerak	326.141,58
lehen	orain
20.000 euro/hilean	10.000 euro/hilean
16 hilabete	33 hilabete
aldea	17 hilabete

Aurreko guztia aintzat harturik, idazkariaren eta kontuhartzailearen aldeko txostenak ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2021eko irailaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso eta Jose Mari Villanueva Telleria,

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin eta Aitana Amondarain Eskisabel.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

Lehena.- Tolosako udal-instalazioen kudeaketa integralaren emakida-kontratuan KIROLZER, SL enpresak egindako eskaera onartzea, 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 30era artean izandako itxieratik eratorritako galerak konpentsatzeko.

Bigarrena.- TOLOSA LANTZEN, SA erakundeak onartutako konpentsazioa berraztertzea emakida berrerekatzeko mekanismoari dagokionez, errekupeazio-erritmoa 2021eko egoeraren errealitatera egokitzeke. Horrela, hilean 20.000 euroko errekupeazio-erritmoa izan ordez, 10.000 eurkoa dela onartzea.

Hirugarrena.- Aurrekoaren ondorioz, enpresak galdutako 326.414,58 euroak berreskuratzeko 16 hilabeteren ordez, 33 hilabete behar direla onartzea.

Laugarrena.- 33 hilabete horiek honela banatzea:

galerak	326.141,58
lehen	orain
20.000 euro/hilean	10.000 euro/hilean
16 hilabete	33 hilabete
aldea	17 hilabete



- 19 hilabete kontratua luzatuz (lehen 16 onartu ziren).
- 14 hilabete dirutan konpentsatzea, lehen esan bezala 10.000 euro hilean kalkulatuta.

Bosgarrena.- Onartzea, aurrekoaren ondorioz, kontratuaren epea 2022ko martxoaren 31ra arte luzatzea eta ordaindu beharreko 140.000 euroak (14 hilabete x 10.000 euro/hilean) emakidadunak ordaindu beharreko kanonetik kentzea.

Seigarrena.- Erabaki honen berri ematea Ogasun eta Administrazio Finantza Sailari, Kirolak Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Abstentzioa: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, udalbatzak gehiengoz onartu du Kirolzer, s.l. enpresak Tolosako udalaren kirol instalazioen kudeaketa integralaren emakidaren oreka ekonomikoa berrorekatzeko eskaera, covid-19 koronabirusak sortutak egoera dela eta.

14.ONARTZEA TOLOSAKO UDAL KIROL-INSTALAZIOEN KUDEAKETA INTEGRALERAKO ZERBITZUEN EMAKIDA-KONTRATUA ARAUTUKO DUEN ADJUDIKAZIOAREN KONTRATAZIO JARDUNBIDEA, ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.

ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2021EKO IRAILAREN 22KO IRIZPENA

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea	Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua
Unitate sustatzailea	Kirol Saila
Espedientea	2021CSER0002

ESKU2d1.f211a-7fa1-466d-80b2-662ec0f81b2d



II.- AURREKARIAK

Lehena.- 2021eko otsailaren 5ean Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S S25 60045-2021-ES) argitaratu zen lizitazioaren aurretiazko iragarkia.

Bigarrena.- Tolosako Udaleko Kirolak Saileko buruak 2021eko irailaren 7an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzuen emakida-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: Administrazio Baldintza Partikularren Plegua, Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua, baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena, kontratua justifikatzeko memoria eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

Hirugarrena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera), II. Liburuko II. Tituloko III. Kapituluaren (284. artikulutik aurrera), zerbitzuen emakida-kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, ondorioak, betetzea, azkentzea, betebeharrak, prestazio ekonomikoak, aldaketak, lehengoratzea eta suntsiaraztea.

Laugarrena.- Txosten berean, kontratuaren xehetasunak aipatzen zituen, beste batzuen artean: kontratuaren xedea, jarduketaren helburuak, kontratuaren balio zenbatetsia, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak.

Bosgarrena.- Halaber, aipatutako txostenean, SPKLren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen dira. Aipatutako legeak hau zehazten du 28. artikuluan:

Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan.

1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publikitatearik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.

Seigarrena.- SPKLren 29.6 artikuluan zerbitzuen emakida-kontratuaren epeei buruz hau zehazten du:

6. Los contratos de concesión de obras y de concesión de servicios tendrán un plazo de duración limitado, el cual se calculará en función de las obras y de los servicios que constituyan su objeto y se hará constar en el pliego de cláusulas administrativas particulares.



Si la concesión de obras o de servicios sobrepasara el plazo de cinco años, la duración máxima de la misma no podrá exceder del tiempo que se calcule razonable para que el concesionario recupere las inversiones realizadas para la explotación de las obras o servicios, junto con un rendimiento sobre el capital invertido, teniendo en cuenta las inversiones necesarias para alcanzar los objetivos contractuales específicos.

Las inversiones que se tengan en cuenta a efectos del cálculo incluirán tanto las inversiones iniciales como las realizadas durante la vida de la concesión.

En cualquier caso, la duración de los contratos de concesión de obras o de concesión de servicios a la que se refiere el segundo párrafo del presente apartado, no podrá exceder, incluyendo las posibles prórrogas, de:

a) Cuarenta años para los contratos de concesión de obras, y de concesión de servicios que comprendan la ejecución de obras y la explotación de servicio.

b) Veinticinco años en los contratos de concesión de servicios que comprendan la explotación de un servicio no relacionado con la prestación de servicios sanitarios.

c) Diez años en los contratos de concesión de servicios que comprendan la explotación de un servicio cuyo objeto consista en la prestación de servicios sanitarios siempre que no estén comprendidos en la letra a).

Los plazos fijados en los pliegos de condiciones solo podrán ser ampliados en un 15 por ciento de su duración inicial para restablecer el equilibrio económico del contrato en las circunstancias previstas en los artículos 270 y 290.

No se tendrán en cuenta a efectos del cómputo del plazo de duración de la concesión y del establecido para la ejecución de las obras aquellos periodos en los que estas deban suspenderse por una causa imputable a la Administración concedente o debida a fuerza mayor. Si el concesionario fuera responsable del retraso en la ejecución de las obras se estará a lo dispuesto en el régimen de penalidades contenido en el pliego de cláusulas administrativas particulares y en esta Ley, sin que haya lugar a la ampliación del plazo de la concesión.

Aurrekoaren arabera, argi geratzen da legeak aurreikusten duen ohiko epea bost urtekoa dela, hala ere, epe hori luzatzeko aukera ematen du, baldin eta emakidadunak zerbitzuak ustiatzeko egindako inbertsioak eta inbertitutako kapitalaren gaineko etekina berreskuratzeko kalkulatu den arrazoizko denborarte. Gehieneko epea edozein kasutan 25 urte dira.

Kasu konkretu honetan, lizitazioaren zati banaezina den azterketa ekonomikoan justifikatu dira kontratuaren xede diren kirol-instalazioetan egin beharreko inbertsioak. Horrela, bi inbertsio mota desberdin planteatu dira: alde batetik, planifikatutako inbertsioak (1.380.000 euro) eta bestetik, berriz, instalazioak mantentzeko inbertsioak (350.000 euro). Horrela, **kontratuaren iraupen guztian zehar 1.415.000 euroko inbertsioa aurreikusten da.**



Ikus daitekeen bezala inbertsioen zenbateko hori oso handia da eta SPKLk erabiltzen duen magnitude batekin aldera daiteke horren garrantzia ikusteko, hala nola, udal aurrekontuaren baliabide arrunten %10. 2021 urterako horren zenbatekoa 2.656.409 euro dira; beraz, nahiz eta emakida honetan egin beharreko inbertsioen zenbatekoa aurrekontuaren baliabide arrunten %10 baino gutxiago izan, kontuan hartu behar da sars-cov-2 koronabirusak sortutako pandemiaren ondorioz emakidaren garapena oso aldakorra izan daitekela eta azterketa ekonomikoek ezin dutela aurreikusi horrelako ezbehar baten eragina. Hori dela eta, emakidadunak zerbitzuak ustiatzeko egindako inbertsioak eta inbertitutako kapitalaren gaineko etekina berreskuratzeko kalkulatzeko den arazoizko denbora **hamar urte** dira.

III.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espeditentea osatu behar da. Espeditentea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da, eta 117. artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espeditentea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatu da:

- Espeditentearen unitate sustatzaileko arduradunak egindako kontratazio-proposamena.
- Berezko baliabideak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- AGEM enpresak egindako azterketa ekonomikoa.
- Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua.
- Administrazio Baldintza Partikularren Plegua.
- Lege-txostena.
- Fiskalizazio-txostena.

Kontratu honek administrazio-izaera du, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 25.1 artikulua a) atalean xedaturikoarekin bat etorrira; zerbitzu-emakida kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 15. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten duen:

Artículo 15. Contrato de concesión de servicios.

1. El contrato de concesión de servicios es aquel en cuya virtud uno o varios poderes adjudicadores encomiendan a título oneroso a una o varias personas, naturales o jurídicas, la gestión de un servicio cuya prestación sea de su titularidad o competencia, y cuya contrapartida venga constituida bien por el derecho a explotar los servicios objeto del contrato o bien por dicho derecho acompañado del de percibir un precio.

2. El derecho de explotación de los servicios implicará la transferencia al concesionario del riesgo operacional, en los términos señalados en el apartado cuarto del artículo anterior.



Bestalde, zerbitzu-emakida kontratu honetan honako hau kontuan izan behar da:

Lehen.- Kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 101.1.b). artikuluan xedaturikoa hartu behar da kontuan:

Artículo 101. Valor estimado.

1. A todos los efectos previstos en esta Ley, el valor estimado de los contratos será determinado como sigue: (...)

b) En el caso de los contratos de concesión de obras y de concesión de servicios, el órgano de contratación tomará el importe neto de la cifra de negocios, sin incluir el Impuesto sobre el Valor Añadido, que según sus estimaciones, generará la empresa concesionaria durante la ejecución del mismo como contraprestación por las obras y los servicios objeto del contrato, así como de los suministros relacionados con estas obras y servicios.

2. En el cálculo del valor estimado deberán tenerse en cuenta, como mínimo, además de los costes derivados de la aplicación de las normativas laborales vigentes, otros costes que se deriven de la ejecución material de los servicios, los gastos generales de estructura y el beneficio industrial. Asimismo deberán tenerse en cuenta:

a) Cualquier forma de opción eventual y las eventuales prórrogas del contrato.

b) Cuando se haya previsto abonar primas o efectuar pagos a los candidatos o licitadores, la cuantía de los mismos.

c) En el caso de que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 204, se haya previsto en el pliego de cláusulas administrativas particulares o en el anuncio de licitación la posibilidad de que el contrato sea modificado, se considerará valor estimado del contrato el importe máximo que este pueda alcanzar, teniendo en cuenta la totalidad de las modificaciones al alza previstas.

En los contratos de servicios y de concesión de servicios en los que sea relevante la mano de obra, en la aplicación de la normativa laboral vigente a que se refiere el párrafo anterior se tendrán especialmente en cuenta los costes laborales derivados de los convenios colectivos sectoriales de aplicación.

3. Adicionalmente a lo previsto en el apartado anterior, en el cálculo del valor estimado de los contratos de concesión de obras y de concesión de servicios se tendrán en cuenta, cuando proceda, los siguientes conceptos:

a) La renta procedente del pago de tasas y multas por los usuarios de las obras o servicios, distintas de las recaudadas en nombre del poder adjudicador.

b) Los pagos o ventajas financieras, cualquiera que sea su forma, concedidos al concesionario por el poder adjudicador o por cualquier otra autoridad pública, incluida la compensación por el cumplimiento de una obligación de servicio público y subvenciones a la inversión pública.

c) El valor de los subsidios o ventajas financieras, cualquiera que sea su forma, procedentes de terceros a cambio de la ejecución de la concesión.

d) El precio de la venta de cualquier activo que forme parte de la concesión.

e) El valor de todos los suministros y servicios que el poder adjudicador ponga a disposición del concesionario, siempre que sean necesarios para la ejecución de las



obras o la prestación de servicios.

4. La elección del método para calcular el valor estimado no podrá efectuarse con la intención de sustraer el contrato a la aplicación de las normas de adjudicación que correspondan.

5. El método de cálculo aplicado por el órgano de contratación para calcular el valor estimado en todo caso deberá figurar en los pliegos de cláusulas administrativas particulares.

(...)

7. La estimación deberá hacerse teniendo en cuenta los precios habituales en el mercado, y estar referida al momento del envío del anuncio de licitación o, en caso de que no se requiera un anuncio de este tipo, al momento en que el órgano de contratación inicie el procedimiento de adjudicación del contrato.

(...)

Horren arabera, balio zenbatetsia kalkulatzeko negozio-zifraren zenbateko garbia hartuko da, BEZa barne hartu gabe, zeina, bere zenbatespenen arabera, enpresa emakidadunak sortuko baitu hura gauzatu bitartean. Balio zenbatetsia kalkulatzeko, kontuan hartu beharko dira, gutxienez, indarrean dauden lan-araudiak aplikatzeak dakartzan kostuez gain, zerbitzuen gauzate materialak eragindako beste kostu batzuk, egitura-gastu orokorrak eta industria-etekinak. Era berean, honako hauek ere kontuan hartu beharko dira:

- a) Behin-behineko aukera oro eta kontratuaren balizko luzapenak.
- b) Hautagaiei edo lizitatzaillei primak ordaintzea edo ordainketak egitea aurreikusi denean, horien zenbatekoa.
- c) 204. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, administrazio-baldintza partikularren pleguan edo lizitazio-iragarkian kontratua aldatzeko aukera aurreikusi bada, kontratuaren balio zenbatetsia izango da kontratuaren gehieneko zenbatekoa, aurreikusitako goranzko aldaketa guztiak kontuan hartuta.

Periodo de recuperación de la inversión	10 años
Beneficio industrial	3,0 %
Usuarios en 2023 respecto al 2019	92 %
IVA: art. 7.8ªd) del Decreto Foral 102/1992	No sujeta

Halaber, honako kontzeptu hauek hartuko dira kontuan, hala dagokionean:

- a) Obra edo zerbitzuen erabiltzaileek tasak eta isunak ordaintzetik datorren errenta, botere adjudikatzaillearen izenean bildutakoak ez badira.

VALOR ESTIMADO	
ingresos	21.920.561,65
gastos (canon incluido)	19.865.038,42
total gestión integral	2.055.523,22
Inversiones	1.380.000,00
valor suministros y servicios cedidos	135.066,50
primas (beneficio variable)	238.186,29
valor estimado	3.808.776,02

- b) Botere adjudikatzailleak edo beste edozein agintaritzaren publiko emakidadunari emandako finantza-ordainketak edo -abantailak, edozein formatakoak direla ere, zerbitzu publikoko betebeharrak bat betetzeagatik konpentsazioa eta inbertsio publikorako diru-laguntzak barne.

modificaciones previstas (20%)	761.755,20
VALOR ESTIMADO TOTAL	4.570.531,22



- c) Emakida gauzatzearen truke hirugarrenek emandako diru-laguntzen edo finantza-abantailen balioa, horien forma edozein dela ere.
- d) Emakidaren parte den edozein aktiboren salmenta-prezioa.
- e) Botere adjudikatzailerak emakidadunaren esku jartzen dituen hornidura eta zerbitzu guztien balioa, baldin eta beharrezkoak badira obrak gauzatzeko edo zerbitzuak emateko.

Horren arabera kontratu honen **balio zenbatetsia 4.570.531,22 eurokoa da.**

Gogorazi behar da hemen, **administrazio-emakidek eta -baimenek ez dutela BEZik ordaindu behar**, hargatik eragotzi gabe ITPk eta EJDk (kostu bidezko ondare-eskualdaketen kontzeptua) zergapetzea. Bestalde, enpresa emakidadunak partikularrari emandako zerbitzua BEZari lotuta egongo da, eta ez BEZa ordaintzetik salbuetsita.

Dirección General de Tributos. Consulta. 18-12-2019

*La Dirección General de Tributos señala que en la medida en que el objeto explotado en estas instituciones tiene la naturaleza de **servicio público** y lo que se concede es la autorización o licencia para su **explotación**, el art. 7.9 LIVA declara la no sujeción al tributo de la concesión administrativa, no debiendo el Ayuntamiento contratante repercutir cuota alguna al concesionario con ocasión de su concesión. No obstante, matiza la DGT que el hecho de que el otorgamiento de la concesión administrativa no esté sujeta al impuesto no impide que, en su caso, sí lo estén los servicios prestados por el concesionario a los **usuarios** en virtud de la misma.*

Bigarrena.- Kontratazio honetan **ez da lotetan banatzea aurreikusi**, eta hori justifikatu da espedientean. Hauexek dira lotetan ez banatzeko arrazoiak: kontratuaren xedean jarduketa integrala eskatzen denez, eta kontuan hartuta kontratuaren xede diren jarduera eta lan guztiak espazio fisiko berean garatuko direla, ez da egokia hura lotetan banatzea; izan ere, kontratuaren xedean jasotako hainbat prestazio modu independentean egiteak zaildu egingo luke hura ikuspegi teknikotik behar bezala gauzatzea. Era berean, koordinazioa beharrezkoa da kontratuko hainbat prestazioren exekuzioan, eta, horiek lotetan banatuz gero, horiek gauzatzea ezinezkoa izango litzateke, edo, gutxienez, jarduketa eraginkor, garden eta osoaren printzipioekin talka egingo luke.

Hirugarrena.- Zerbitzu-emakiden kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, erregulazio harmonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan daitezke. Kasu honetan, 20.1 artikuluren b) idatz-zatian xedatzen den kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen ez duenez (5.350.000 euro), araudi horretara ez dago lotuta; beraz, **ez da hau erregulazio harmonizatupeko kontratua**. Horrenbestez, lizitazioaren iragarkia, **kontratatzailearen profilean** soilik argitaratu beharko da eta ez Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian.



Laugarrena.- SPKLren 44.1 c) artikulua xedaturikoaren arabera, kontratazioari buruzko errekurso berezia tartekatu ahal izango da, balio zenbatetsiak 3.000.000 euroko kopurua gainditzen badu; beraz, kasu honetan atalase hori gainditzen denez, **kontratazioari buruzko errekurso bereziaren menpe egongo da lizitazioa**. Horrenbestez, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontratua ezingo da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitazialei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

Bosgarrena.- Bestalde, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren I. titularen IV. Kapituluaren eta horren I. eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKLk 86., 87., eta 91. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Seigarrena.- Halaber, eta ordainagirien ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa:

4. Obra-ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, hargatik eragotzi gabe 210. artikuluen 4. apartatuan ezarritako epe berezia; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketarako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera. Interesak sortzeko epea abiarazteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan garai eta modu egokian aurkezteko betebeharra, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan. Betebehar hori hogeita hamar eguneko epean bete behar du, salgaiak egiaz entregatu edo zerbitzua egiaz eman duen egunetik aurrera.

Zazpigarrena.- SPKLk, II. Liburuko II. Tituloko III. Kapituluaren (284. artikulutik aurrera), zerbitzuen emakida-kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu. Hau da 284. artikulua zehazki aipatzen duena:

284. artikulua. Zerbitzu-emakidako kontratuaren eremua.

- 1. Administrazioak, zerbitzu-emakidako kontratu baten bidez, zeharka kudea ditzake bere titulartasuneko edo eskumeneko zerbitzuak, baldin eta zerbitzu horiek partikularrek ekonomikoki ustiatzeko modukoak badira. Inola ere ezin dira zeharka kudeatu botere publikoari dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.*
- 2. Zerbitzu-emakidako kontratazio bat egin baino lehen, zerbitzu publikoen kontratazio bat baldin bada, dagokion araubide juridikoa ezarri beharko da; araubide horrek espresuki adierazi behar du dagokion administrazioak bere egiten duela dena delako jardura, herritarrentzako prestazioen helmena zehaztu behar du, eta zerbitzua emateari lotutako alderdi juridiko, ekonomiko eta administratiboak arautu behar ditu.*
- 3. Kontratuak, nolahi ere, argi eta garbi adieraziko du emakidaren eremua, bai egitekoei dagokienez, bai lurraldeari dagokionez ere.*



Horiek horrela, honen bidez, berariaz adierazten da **Tolosako Udalak bere gain hartzen duela kontratuaren xede diren udal kirol-instalazioetan egin beharreko kirol-jarduera** eta Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan jasotzen den bezala, kontratuaren xede den zerbitzua **udal-zerbitzu publikoa da**, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25.2.l) artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17.1.19) artikuluan xedatutakoaren arabera. Horregatik, kontratua garatzen den bitartean, espazioen eta ordutegiaren erabilgarritasunari dagokionez, erabateko lehentasuna izango du toki-eskumeneko zerbitzuak emateak eta kontratu honen xede diren instalazioetan garatu nahi den beste edozein jarduerara, haren mende geratuko da.

Era berean, talde, enpresa, elkarte, fundazio, erakunde edo gainerako pertsona fisiko edo juridiko jakin batzuei erreserbak egiten bazaizkie, Udalak Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguaren II. eranskinean aurreikusitakoez gain, horiek ezin izango dute zerbitzu publikoaren garapen normala oztopatu.

Halaber, 285.2 artikuluan hau zehazten da emakidaren bideragarritasunari buruz:

2. Zerbitzu-emakidako kontratuetan, espedientea izapidetu baino lehen horien bideragarritasunari buruzko azterlan bat egin eta onetsiko da, edo, kasua bada, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterlan bat; azterlan horiek lotesleak izango dira proiektua eginezina dela ondorioztatzen den kasuetan. Berekin obrak egitea dakarten zerbitzu-emakidako kontratuen kasuetan, emakida izapidetu baino lehen, gainera, 248.1 artikuluan xedatutakoaren arabera hala dagokionean, behar diren obrak eraikitzeko eta ustiatzeko aurreproiektuaren taxutze eta oneste administratiboa egingo da, hura gauzatzeari buruzko preskripzio teknikoak zehaztuta, eta, gainera, obra-proiektua idatzi, gainbegiratu eta onetsi beharko da eta zuinketa egin.

Kasu konkretu honetan AGEM enpresak egin du “*Estudio de viabilidad económico-financiera. Gestión integral de las instalaciones municipales Usabal, Berazubi, Uzturpe y Beotibar.*” izeneko bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa. Halaber, zerbitzu-emakida honetan obrak egitea aurreikusita ez dagoenez, obrak eraikitzeko eta ustiatzeko aurreproiektuaren taxutze eta oneste administratiboa egitea ez da beharrezkoa izango.

Zortzigarrena.- Emakidadunaren **ordainsariari** dagozkionez eta SPKLren 289. artikuluan xedatutakoaren arabera, emakidadunak zuzenean jasoko ditu erabiltzaileengandik, zerbitzua ustiatzeko eskubidea gauzatzeko, horiek erabiltzeagatik dagozkion tarifak. Tarifa horiek prezio pribatuen izaera izango dute, eta SPKLren 267. artikuluan eta Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguaren 6. puntuan xedatutakoaren arabera, emakidaren bigarren urtetik aurrera, hau da, 2023tik aurrera, enpresa esleipendunak hurrengo urterako prezioen proposamena egingo du, eta Udalak onartu beharko du.

Emakidadunak emakidaren diru-sarrera eta gastu guztiei buruz eraman behar duen kontabilitate bereizian, Tolosako Udalaren eskura egon beharko duena, hitzartutako



kontraprestazioen ondoriozko sarrera eta gastu guztiak behar bezala jasota geratuko dira, SPKLren 267. artikuluan 6. zenbakian aurreikusitako moduan. **Horrela, emakidadunak lortutako irabazi garbiaren ehuneko ehun eskuratuko du beretzat, urteko 62.000 euroko mugarekin.**

Kanonari dagokionez SPKLren 289. artikuluan xedatutakoaren arabera, emakidadunak kanon finko bat ordainduko dio Tolosako Udalari kontratuaren xede diren instalazioak ustiatzeagatik. Lizitatzailleek gorantz hobetu beharreko urteko kanonaren gutxieneko zenbatekoa 70.000 eurokoa da.

Aurrekoaz gain, **irabazi aldakorra** egongo da emakidadunarentzat, zerbitzuaren urteko kudeaketa onak aurrez ezarritako kalitate-estandarretan lortutako balorazioaren arabera. Irabazi aldakor hori, Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguko 6. puntuan aipatzen dena, dagokion ekitaldia itxi ondoren kalkulatu da, egindako kudeaketaren kalitate-estandarretan oinarrituta. Horrela, emakidadunak muga gisa ezarritako urteko 62.000 euroko irabazi garbia gainditzen badu, irabazi gehigarri bat lortuko du, eta horren zenbatekoa kalkulatzeko, portzentaje bat aplikatuko zaio (egindako kudeaketaren kalitate-estandarretan lortutakoa) ezarritako gutxienezkotik lortutako gehiegizko irabaziari.

IV.- ESPEDIENTE MOTA

SPKLk 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditentak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen ere, arruntak edo ohikoak, presakoak eta larrialdietakoak. Presakoak, 119. artikuluan arautzen dira honako honen arabera: *“Presako izapidetzea erabili ahal izango da atzera ezineko premia daukaten kontratuen espeditentak edo interes publikoa dela-eta kontratuen adjudikazioa bizkortu beharra dutenak izapidetzeko. Horretarako, kontratazio-organoak egindako urgentzia adierazpena eduki behar du espeditentak, behar bezala arrazoitua”*. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak, aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: *“Edo hondamendiak gertatu direlako edo arrisku larria sortzen duten egoerak daudelako edo Estatuko defentsari eragiten dioten premiak daudelako Administrazioak berehala jardun behar badu...”*.

Kasu honetan, ez da Legearen 119 eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik beraz, kontratazio-espeditente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritz.

Kasu honetan, SPKLaren 117.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditente hau **izapidetze aurreratuaz egingo da**, exekuzio materiala hurrengo ekitaldian hasi behar duen kontratua dagokion kontratua finantzatu behar duten baliabideen kontsolidazio efektiboaren mende baitago, hau da, kontratua benetan exekutatzeko, hurrengo ekitaldietako udal-aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa



egon behar da.

V.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Epea: Kontratuak hamar urteko iraupena izango du.

Balio zenbatetsia: SPKLaren 101.1.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak. Hori guztia kontuan hartuz, kontratuaren balio zenbatetsia **4.570.531,22** eurokoa da.

10 años	modificaciones previstas	VALOR ESTIMADO
3.808.776,02	761.755,20	4.570.531,22

Kanona: Lizitazio honetako dokumentazioaren zati banaezina den azterketa ekonomikoaren arabera, lizitatzailerek hobetu beharreko **gutxieneko urteko kanona 70.000 eurokoa** da (administrazio-emakida bat denez, BEZik gabeko eragiketa da).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren irabaziak, **550.04** diru-sarreraren udal aurrekontu-partidan jasoko dira.

Kasu honetan, SPKLaren 117.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditante hau **izapidetze aurreratuz egingo da**, exekuzio materiala hurrengo ekitaldian hasi behar duen kontratua dagokion kontratua finantzatu behar duten baliabideen kontsolidazio efektiboaren mende baitago, hau da, kontratua benetan exekutatzeko, hurrengo ekitaldietako udal-aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egon behar da.

VI.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA

Proposatutako kontratazioari SPKLn jasotako esleipen-jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *“Normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio irizpide ugari erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, eta prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz, salbu eta...”*.

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espeditante honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publikitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala, proposamen tekniko eta, batik bat, ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz egin behar da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, eta Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 20.



klausulan eta haren I. eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 146. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura baitute. Kasu honetan, zifra edo ehunekotan baloratu daitezkeen irizpideak ehuneko 52 dira, zifra edo ehunekotan baloratu ezin daitezkeenak, berriz, ehuneko 48.

Azkenik, berme-epari dagokionez, SPKLren 111.5 azken idatz-zatian xedaturikoa betez, urtebetean finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak 100.000 euroko kopurua gainditzen baitu.

VII.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA

Kontratazio-espeditareekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua aztertu dira, kontuan harturik SPKLren 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa, eta egiaztatu da araututako xedapenekin bat datozela.

VIII.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.

2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateetako alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 4.570.531,22 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.656.409 euro) baino gehiago da; gainera, kontratuaren iraupena lau urte baino gehiagokoa denez, **Udaleko Osoko Bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**



Gogorazi behar da hemen, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak hau esaten duela 47.2 artikuluan:

2. *Korporazioko legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar da, jarraian agertzen diren arloetan erabakiak hartzeko:*
j) *Ondasunak zein zerbitzuak bost urte baino gehiagorako emakidan ematea, beti ere, horien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten %20 gainditzen badu.*

Tolosako Udalaren kasuan, aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 20a 5.312.818 euro dira; beraz, kontratuaren balio zenbatetsiak aipatutako atalase hori gainditzen ez duenez, Udaleko Osoko Bilkurak onartu beharko du lizitazioa **gehiengo soilarekin** eta ez gehiengo osoarekin.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, idazkariaren eta kontuhartzailearen aldeko txostenak ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2021eko irailaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso eta Jose Mari Villanueva Telleria,

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin eta Aitana Amondarain Eskisabel.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari::

IRIZPENA

Lehena.- Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratuaren espedientea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea.

Bigarrena.- Kontratu honen ezaugarriak onartzea:
Epea: Kontratuak hamar urteko iraupena izango du.



Balio zenbatetsia: SPKLaren 101.1.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak. Hori guztia kontuan hartuz, kontratuaren balio zenbatetsia **4.570.531,22** eurokoa da.

10 años	modificaciones previstas	VALOR ESTIMADO
3.808.776,02	761.755,20	4.570.531,22

Kanona: Lizitazio honetako dokumentazioaren zati banaezina den azterketa ekonomikoaren arabera, lizitatuzaileek hobetu beharreko **gutxieneko urteko kanona 70.000 eurokoa** da (administrazio-emakida bat denez, BEZik gabeko eragiketa da).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren irabaziak, **550.04** diru-sarrereren udal aurrekontu-partidan jasoko dira.

Kasu honetan, SPKLaren 117.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditante hau **izapidetze aurreratuaz egingo da**, exekuzio materiala hurrengo ekitaldian hasi behar duen kontratua dagokion kontratua finantzatu behar duten baliabideen kontsolidazio efektiboaren mende baitago, hau da, kontratua benetan exekutatzeko, hurrengo ekitaldietako udal-aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egon behar da.

Hirugarrena.- Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Partikularren Plegua, Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua eta AGEM enpresak egindako azterketa ekonomikoa.

Laugarrena.- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide irekia) eta dagokion iragarkia argitaratzea Euskadiko Kontratatuzailearen Profilean lizitatuzaileek beren proposamenak 50 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Bosgarrena.- Erabaki horiek jakinaraztea Kirolak Sailari, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

Irizpenaren bi bozketa egin dira:

Lehenengo bozketaren emaitza berdinketa eman da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa eta Jose M^a Villanueva Telleria.



Aurkako botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Bigarren bozketaren emaitzan ere berdinketa:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkako botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Udalbatzaren bigarren berdinketaren aurrean alkateak kalitatezko botoa eman du Irizpenaren alde.

Beraz, irizpena onartu da alkatearen kalitatezko botoarekin.

:::Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, EAJ-PNV taldeko zinegotziak aretoan sartu da.

15.ONARTZEA TOLOSAKO UDALAREN ETA IZFE, S.A. -INFORMATIKA FORU SOZIETAREAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2021EKO IRAILAREN 22KO IRIZPENA

AURREKARIAK

2021eko uztailaren 13an, IZFE, S.A.-Informatika Zerbitzuen Foru Sozietateak aurkeztu zituen Tolosako Udalaren Erregistro Elektronikoko Orokorrean (erregistro-zenbakia: 6912), "IZFE, S.A.-Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen eta Tolosako udalaren arteko Lankidetzak-Hitzarmena" hitzarmen-proposamena eta hari erantsitako dokumentua, 2021erako oinarritzko informatika-zerbitzuei dagokien udal honentzako derrama-proposamena jasotzen duena.

Izapidetutako espedientean honako txosten hauek eman dira:

- Informatikako teknikariak 2021eko uztailaren 15ean aldeko txostena eman zuen.



- Udal Idazkariak proposamenaren aldeko txostena eman zuen 2021eko abuztuaren 17an.
- Udal Kontuhartzaile akzidentalak, proposamenaren aldeko txostena izenpetu du 2021eko irailaren 15ean, honako ñabardurarekin:
 - *2022-2024 ekitaldietarako, klausula bat sartu beharko litzateke adierazteko gastuaren baimena baldintzatuta geratuko dela gastua baimentzen den ekitaldiko aurrekontuan nahiko kreditua izatera, dagokion aurrekontu partidan.*

AZTERKETA JURIDIKOA

1. HITZARMENA SINATUKO DUTEN ERAKUNDEEN IZAERA ETA GAITASUNA

Hitzarmenaren aurrekarietan jasotzen dira erakunde bakoitzaren gaitasuna hitzarmena sinatzeko :

A) IZFE, S.A.:

“Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte/Sociedad Foral de Servicios Informáticos, SA”, Gipuzkoako Foru Aldundiak osaturiko sozietate publikoa da, ekainaren 29ko 55/1993 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera. Foru Administrazioak sozietatearen kapitalaren %100a du.

Akziodunen Batzar Orokorrak 2008ko irailaren 23an hartutako erabakiaren ondorioz IZFE, S.A. Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahiz foru sektore publikoko gainerako entitateen baliabide propioa eta zerbitzu teknikoa da. Akordio hori 2009ko apirilaren 21eko eskritura publikoan formalizatu zen.

“Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte/Sociedad Foral de Servicios Informáticos, SA” Merkataritzako Entitatearen Estatutu Sozialen 3. artikulua honek xede sozietate Aldundiarentzako zerbitzu informatikoak zerbitzatzeko eta zerbitzu horien eragin-eremuan bere helburuak betetzeko berarekin elkarlanean aritzea duela ezartzen du. 40/2015 Legearen, Sektore Publikoko Araubidea arautzen duenaren 2.2.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, IZFE S.A. sektore publikoaren barruan sartzen da.

B) TOLOSAKO UDALA:

Udalaren kasuan, 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 2. artikuluan honako hau xedatzen du: 1. *Konstituzioak toki-erakundeei bermatzen dien autonomia eraginkorra izan dadin, Konstituzioak ezarritako eskumen-banaketa araberako herri-ekintzako arloak arautzen dituzten Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legediek ziurtatu beharko diete udalerrri, probintzia eta uharterei beren interesen esparruari zuzenean eragiten dioten gai guztietan esku hartzeko eskubidea, eta kasuan kasuko herri-jardueraren ezaugarrien araberrako eta toki-erakundearen kudeaketa-gaitasunaren*



araberako eskumenak eman, deszentralizazioa eta administrazio-kudeaketa herritarrei ahalik eta gehien hurbiltzea printzipiotzat hartuta. 2.- Konstituzioan aurreikusitako Estatuko oinarrizko legeek zehaztu beharko dituzte toki-erakundeei aitortuko dizkieten eskumenak edo, nahitaez, legeok araututako arloetan toki-erakundeei dagozkienak.

Bestaldetik, aipaturiko Legearen 5. artikulua xedatzen du: *Toki-erakundeek beren xedeak betetzeko eta zeinek bere eskumenen esparruan, Konstituzioarekin eta legeekin bat, gaitasun juridiko osoa izango dute ondasun-mota guztiak eskuratu, eduki, galdatu, trukatu, kargatu nahiz besterentzeko, kontratuak egiteko, herri-lan zein herri-zerbitzuak ezarri eta ustiatzeko, obligazioak hartzeko, ezarritako errekurtsioak jartzeko eta legetan aurreikusitako akzioez baliatzeko.*

Hitzarmen honen aurrekari gisa, aipatu behar da 2021eko ekainaren 9an, Euskadiko Udalen Elkarteko ordezkariak (EUDEL) eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernanzako foru diputatuak hitzarmen bat izenpetu zutela izenburu honekin: *GIPUZKOAKO UDALEI ETA GAINERAKO TOKI ERAKUNDEEI INFORMATIKA ZERBITZUAK ESKAINTZEKO, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA EUDELen ARTEKO LANKIDETZARAKO ESPARRU-HITZARMENA*. Hitzarmen honen xedea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta lurralde historiko horretako udalerrien arteko lankidetzaz-esparru orokor bat ezartzea, informatika-zerbitzuen arloan.

Hitzarmen honen xede diren zerbitzu informatikoak emateagatik fakturazioa, bai oinarrizko zerbitzuak, bai beste zerbitzu batzuk, hiru hilean behin egingo da, arau orokor gisa, eta honako kontzeptu hauek jaso beharko ditu.

1. Oinarrizko zerbitzuak, honako hauek barne:

Lankidetzaren proiektuaren gastuen derramari dagokion partea, lankidetzaren

En la fijación de los objetivos en materia de formación se tendrán en cuenta los criterios generales siguientes:

- Se procurará que existan calendarios formativos anuales, que se comunicarán a todas las personas de la forma que se estime más conveniente, además de su inclusión en los foros de que IZFE SA dispone en Internet.

- Se intentará que la formación alcance también niveles avanzados, tanto en las aplicaciones ofimáticas, como en las propias de IZFE.

- Se elaborarán manuales por cada aplicación, claros y bien estructurados, que ayuden a las personas usuarias.

OCTAVA. Interlocución municipal.

Al objeto de mantener la necesaria comunicación entre las partes convenidas, el Ayuntamiento de Tolosa nombrará una persona representante de la Corporación en calidad de interlocutor ante IZFE S.A, con la finalidad de coordinar cuantos asuntos o incidencias afecten a la Entidad Local en relación con los servicios prestados o que vayan a prestarse.

NOVENA . Facturación.

La facturación por la prestación de los servicios informáticos objeto del presente convenio, tanto los <servicios de carácter básico> como <otros servicios>, se realizará con carácter trimestral, como norma general, y deberá incluir los siguientes conceptos:

1. Servicios de carácter básico, que incluyen:

Parte correspondiente a la derrama de gastos del proyecto de



proiektuaren oinarrizko zerbitzuen urteko Adenda-Derrama II. berriazko hitzarmen honen eranskinean ezarritako gastuen arabera.

2.- Beste zerbitzu batzuk (hitzarmen honen seigarren klausulan ezarritakoak).

Tolosako Udalak eskatutako zerbitzuak, baldin eta horien kostua ez badago jasota Udalaren lankidetzaproiektuaren urteko kostuan – Oinarrizko zerbitzuak–, Tolosako Udalak onartutako eskaintza espezifikoan jasotzen den moduan eta prezioan fakturatuko dira.

Tolosako Udalak hitzarmen honen arabera bere gain hartutako konpromiso ekonomikoak finantzatzeko kredituak (lankidetzaproiektuaren oinarrizko zerbitzuen urteko Adenda-Derrama II. eranskinean) adierazitako zenbatekoak dira, eta bertan adierazitako aurrekontu partidetan daude kontsignatuta.

HAMARGARRENA. Eztabaidak konpontzea.

Hitzarmen honen kudeaketa, jarraipena eta kontrola egiteko, hitzarmen markoaren bederatzigarren klausulan ezarritako jarraipen batzordeari aurkeztuko zaizkio, argitu eta ebatzi ditzan.

HAMAIKAGARRENA. Hitzarmena berrikustea.

Hitzarmen honen testua aldatu ahal izango da, alderdietako edozeinek eskatuta, hitzarmenaren xedea eta haren ondoriozko jarduerak hobeto gauzatzeko beharrezkoa denean.

Hitzarmenaren klausulak berrikusten badira, dagozkion aldaketak bertan sartu beharko dira, alderdiek izenpetuko duten gehigarri baten bidez.

colaboración, con arreglo a los gastos establecidos en el Anexo II, Adenda-Derrama anual servicios básicos proyecto colaboración, del presente convenio específico.

2.- Otros servicios (establecidos en la estipulación sexta del presente convenio).

Aquellos servicios requeridos por el Ayuntamiento de Tolosa, cuyo coste no se encuentre recogido en el Coste Anual del Proyecto de Colaboración Ayuntamiento - Servicios básicos-, se facturarán en la forma y por el precio que se recoja en la oferta específica aprobada por el Ayuntamiento de Tolosa.

Los créditos destinados a financiar los compromisos económicos asumidos en virtud de este convenio por el Ayuntamiento de Tolosa ascienden a los importes indicados en el anexo II Financiación y distribución de gastos (Adenda- Derrama anual servicios básicos proyecto colaboración) estando consignados en las partidas presupuestarias indicadas en el mismo.

DÉCIMA. Resolución de controversias.

Las dudas y discrepancias que puedan surgir en la interpretación, desarrollo y ejecución del presente convenio se elevarán para su aclaración y resolución a la Comisión de Seguimiento establecida en la cláusula novena del convenio marco.

UNDÉCIMA. Revisión del convenio.

El texto de este convenio podrá ser modificado por acuerdo de las partes, a instancia de cualquiera de ellas, cuando resulte necesario para la mejor realización de su objeto y de las actuaciones derivadas del mismo.

De producirse la revisión de su clausulado, los cambios correspondientes habrán de incorporarse al mismo, mediante



Adenda que será suscrita por las partes.

Era berean, eranskin prozedura horren bidez, alderdiek eranskinak eranstea edo aldatzea erabaki ahal izango dute, bai hitzarmen honetan zehaztutako zerbitzu informatikoak hobetzeko, handitzeko edo eguneratzeko, bai gastuak banatzeko sistema aldatzeko, baina horrek ez du ekarriko hitzarmen honetako klausulak berrikustea.

HAMABIGARRENA. *Hitzarmenaren izaera.*

Hitzarmen hau administratiboa da, eta 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, Atariko Tituluaren VI. kapituluan xedatutakoaren arabera arautuko da.

Halaber, Sektore Publikoko Kontratuak buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo gelditzen da, bere 6.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

HAMAHIRUGARRENA. *Indarrean sartzea eta indarraldia.*

Hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa izango da, 2021ko urtarrilaren 1etik kontatzen hasita. Epe hori amaitu baino lehen, edozein momentutan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena gehienez beste lau urtetarako luzatzea edo iraungitzea.

Asimismo, mediante dicho procedimiento de Adenda, las partes podrán acordar la incorporación de Anexos o la modificación de los mismos, bien para la mejora, ampliación o actualización de los servicios informáticos determinados en el presente convenio o bien para la modificación del sistema de distribución de gastos, sin que esto suponga la revisión de las cláusulas del presente convenio.

DUODÉCIMA *Naturaleza del convenio.*

El presente convenio tiene naturaleza administrativa y se regirá por lo dispuesto en el capítulo VI del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Así mismo, está excluido del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, de conformidad con lo previsto en su artículo 6.1.

DECIMOTERCERA. *Entrada en vigor y vigencia.*

El plazo de vigencia del presente convenio es de cuatro años, contados a partir del día 1 de enero de 2021. En cualquier momento antes de la finalización de dicho plazo, los firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta otros cuatro años adicionales, o bien su extinción



HAMALAU GARRENA

Hitzarmen hau azkenduko da bere xede diren jarduketak betetzeagatik edo suntsiarazteko arrazoiak gertatzeagatik.

40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 51.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hauek dira hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak:

a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena erabaki gabe.

b) Sinatzaile guztien ahobatezko erabakia.

c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea.

Halakoetan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahalko dio bereak bete ez dituen alderdiari, epe jakin baten barruan bete ditzan betegabetzat jotako betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimenduan azaldutako epea igaro eta ez betetzeak irauten badu, errekerimendua igorri zuen alderdiak alderdi sinatzaileei jakinaraziko die badagoela hitzarmena suntsiarazteko arrazoia, eta hitzarmena suntsituta dagoela ulertuko da.

d) Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzeko erabaki judiziala.

e) Aurrekoak ez diren bestelako arrazoiak, hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusitakoak.

Nolanahi ere, salaketa jakinarazi den momentuan hasita dauden jarduerak bukatzeko konpromisoa hartzen dute bi alderdiek.

Hitzarmena suntsiarazteak ez du ekarriko hitzarmen honen hirugarren klausulan aurreikusitako egindako kontribuzio

DECIMOCUARTA . Resolución y extinción

El presente convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en causa de resolución.

De conformidad con lo establecido en el art. 51.2 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, son causas de resolución del convenio:

a) El transcurso del plazo de vigencia del convenio sin haberse acordado la prórroga del mismo.

b) El acuerdo unánime de todas las partes firmantes.

c) El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguna de las partes firmantes.

En este caso, cualquiera de las partes podrá notificar a la parte incumplidora un requerimiento para que cumpla en un determinado plazo con las obligaciones o compromisos que se consideran incumplidos. Si trascurrido el plazo indicado en el requerimiento persistiera el incumplimiento, la parte que lo dirigió notificará a las partes firmantes la concurrencia de la causa de resolución y se entenderá resuelto el convenio.

d) Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del convenio.

e) Por cualquier otra causa distinta de las anteriores prevista en el convenio o en otras leyes.

En cualquier caso, las partes se comprometen a finalizar el desarrollo de las acciones ya iniciadas en el momento de la notificación de la denuncia.

La resolución del convenio no implicará devolución de la contribución económica, prevista en la



ekonomikoa itzultzea, jada gauzatu bada, eta ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik emango.

HAMABOSGARRENA. Jurisdikzio eskuduna

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko auzitegiei dagokie hitzarmen hau aplikatu eta garatzearen ondorio diren auziez arduratzeko eskumena.

Eta ados daudela frogatuz, hitzarmen hau bi aletan izenpetu dute, ondorio bakarerrako, goiburukoan adierazitako toki eta egunean.

Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea/
Sociedad Foral de Servicios Informáticos

Stua./Fdo._ Eider Mendoza Larrañaga

cláusula tercera de este convenio, que ya haya sido hecha efectiva ni dará derecho a indemnización alguna.

DECIMOQUINTA. Jurisdicción competente.

Para el conocimiento de las cuestiones litigiosas derivadas de la aplicación y desarrollo del presente convenio serán competentes los Tribunales de la jurisdicción contencioso-administrativa.

Y en prueba de conformidad, firman el presente convenio por duplicado, y a un solo efecto, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

Tolosako Udaleko Alkatea /
L a Alcaldesa del Ayuntamiento
de Tolosa

Stua./Fdo.: Olatz Peon

BIGARRENA.- Onartzea hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa izatea, 2021ko urtarrilaren 1etik kontatzen hasita. Epe hori amaitu baino lehen, edozein momentutan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena gehienez beste lau urtetarako luzatzea edo iraungitzea.

HIRUGARRENA.- Onartzea hitzarmen honen ondoriozko gastua 2021eko ekitaldirako, eta honako aurrekontu-partida hauei egozte:

0300.222.05.920.30 2021	AD-1224/2021	1.781,68
0300.227.01.920.30 2021	AD-1222 eta 1223/2021	130.694,48

2022-2024 ekitaldietarako, gastuaren baimena baldintzatuta geratuko da gastua baimentzen den ekitaldiko aurrekontuan nahiko kreditua izatera, dagokion aurrekontu partidan

LAUGARRENA.- Alkate-Udalburuari ahalmena ematea, aipatu hitzarmena eta eranskinak, eta berau egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpe ditzala.

BOSGARRENA.- Hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan, web orrian eta gardentasunaren atarian argitaratzea.

SEIGARRENA.- Erabaki hauek IZFE, S.A.-Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteari jakinaraztea.



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Tolosako udalaren eta IZFE, S.A.-Informatika Zerbitzuen Foru sozietaren arteko lankidetzeta-hitzarmena, udalari zerbitzu informatikoak emateko xedea duena.

16.TOPIC DAGOEN ERAIKINAREN ERABILERA PRIBATIBOARI DEMANIOZKO KONTZESIO ESPEDIENTEA IRAUNGITZEA.

HERRITARRAK INFORMAZIO BATZORDEKO 2021EKO IRAILAREN 22KO IRIZPENA

AURREKARIAK

2021eko irailaren 13an, Kultura, Festak eta Gazteria Departamentu Buruak, Topic eraikinaren jabari publikoko emakidaren inguruan, gaiaren eta balizko emakidaren garrantzia eta dimentsioa kontuan izanik, 2011ko maiatzeko ebazpenarekin aurrera jarraitzea edo, indarrean ez badago, prozedimenduarekin jarraitzeko pausuak ematea proposatzen du, emakida prozedimendu berri bat martxan jarri ahal izateko. Horrela dio txostenak:

Udalbatzak, 2011ko maiatzaren hamabian egin zuen Osoko Bilkuran, besteak beste, erabaki hau hartu zuen:

TOPIC dagoen eraikinaren erabilera pribatiborako demaniozko kontzesio espedientearen onarpena:

- *Memoriaren onarpena.*
- *Baldintza administratibo orokor eta partikularren onarpena.*

Tolosako Ekinbide Etxeak (aurrerantzean TEE) eta Tolosako Udalak, 2007ko azaroan, Lankidetzarako Esparru Hitzarmen bat sinatu zuten. Hitzarmen horretan esparru orokor bat ezarri zen lankidetzan jarduteko, TOPIC Nazioarteko Txotxongilo Zentroa diseinatu, eraiki eta kudeatzeko eginbeharretan.

Aipameneko hitzarmenean aurreikusten zen, era berean, egoitza eraiki eta gero hitzarmen



osagarri bat sinatzeko asmoa. Bide batez, konpromiso batzuk zehazten dira bertan, TOPIC Nazioarteko Txotxongilo Zentroaren eta TEEren zesioaz, lagapen horrekin lotutako beste konpromiso batzuekin batera.

Txotxongiloen zentroaren eraikuntza bukatuta dagoenez, egoitza horrek Tolosako Udalaren jabari publikoko izaera daukalarik, eta aipameneko Lankidetzarako Esparru Hitzarmenean aurreikusitakoa bete dadin, akordio honen bitartez doan utzi nahi da zentroaren eta bere ekipamenduaren erabilera, zuzeneko kontzesioaren bidez, uste delako TEE dela hura gestionatzeko dagoen entitate bakarra. Izan ere, TEEk sustatu, antolatu eta finantzatu ditu azken 20 urteotan txotxongiloaren gaineko jardura guztiak, Tolosa nazioarteko erreferente bihurtu delarik aipameneko jardueraren alorrean. Gainera, TEE irabazi asmorik gabeko entitatea da eta onura publikokotzat deklaratu izan da.

Beraz, oinarrituta, batetik, Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legeko 93 artikuluan eta honekin loturik dagoen 137.4 b) artikuluan, zeinak onartzen duen zuzeneko adjudikazioa, baldin eta zesioduna irabazi asmorik gabeko entitatea bada eta onura publikokoa (eta hori da TTEren kasua), eta bestetik, Ondasunen Erregelamenduko 74 artikuluan eta hurrengoetan, Udalak, aho batez, Udalbatza osatzen duten kideen gehiengo absolutuarekin,

ERABAKI DU:

Lehena.- Onartzea txostena, udal zerbitzuek idatzia eta justifikatzen duena demaniozko kontzesioa, TOPIC Nazioarteko Txotxongilo Zentroa deritzon higiezinaren erabilera pribatiborako.

Bigarrena.- Onartzea Klausula Administratibo orokor eta partikularren Agiria, Euskal Herria plazako 1 zenbakidun eraikinaren, TOPIC Nazioarteko Txotxongilo Zentroaren, eta bere instalazio eta ekipamenduaren erabilera pribatiboaren zuzeneko adjudikazio bidezko kontzesioa arautzen duena.

Hirugarrena.- Espedientea 30 egun jendaurrean jarrita edukitzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Taulan jarriz, egokitzen jotzen diren alegazioak aurkezteko aukera egon dadin.

Laugarrena.- Alegaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat jotzea eta Tolosako TEEri eskaintzea Euskal Herria plazako 1 zenbakidun eraikinaren eta bere instalazio eta ekipamenduaren erabilera pribatuaren administrazio kontzesioa.

Bosgarrena.- Espedienteak behin betiko onespina jaso eta gero, alkateari delegatzea erabakitakoaren exekuzioa, zuzenbidean dagozkion ahalmen guztiak emanaz, kontzesio kontratua formalizatzeko beharrezkoak diren eragiketak eta egintzak burutzeko.”

2011ko maiatzaren 31an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, espedientea jendaurrean jarri zen, adieraziz onarpena behin betikoa izango zela alegaziorik egin ezean.



Jendaurreko epea igaro ondoren, alegaziorik ez zen egon. Beraz, hurrengo pausua Tolosako Ekinbide Etxeari gonbidapena egitea zen. Espedientean, ordea, ez zen beste pausorik eman.

Honen ondorioz, esan daiteke CIT-TEE elkarteak Euskal Herria plazako eraikinean ari dela bere ekimena aurrera eramaten, okupazio honen legezkotasuna ziurtatuko lukeen prozedimendu administratiboa bukatu gabe utzita, beraz, legez kanpoko edo "legerik gabekoa" izan daitekeen egoera batean.

AZTERKETA JURIDIKOA

2021eko irailaren 8an, Administrazio Orokorreko Teknikariak gaiaren inguruko txosten juridikoa egin du. Horrela dio:

I.- AURREKARIAK

"TOPIC dagoen eraikinaren erabilera pribatiborako demaniozko kontzesio espedientearen onarpena:

- Memoriaren onarpena.
- Baldintza administratibo orokor eta partikularren onarpena.

Tolosako Ekinbide Etxeak (aurrerantzean TEE) eta Tolosako Udalak, 2007ko azaroan, Lankidetzarako Esparru Hitzarmen bat sinatu zuten. Hitzarmen horretan esparru orokor bat ezarri zen lankidetzan jarduteko, TOPIC Nazioarteko Txotxongilo Zentroa diseinatu, eraiki eta kudeatzeko egin beharretan.

Aipameneko hitzarmenean aurreikusten zen, era berean, egoitza eraiki eta gero hitzarmen osagarri bat sinatzeko asmoa. Bide batez, konpromiso batzuk zehazten dira bertan, TOPIC Nazioarteko Txotxongilo Zentroaren eta TEEren zeszioaz, lagapen horrekin lotutako beste konpromiso batzuekin batera.

Txotxongiloen zentroaren eraikuntza bukatuta dagoenez, egoitza horrek Tolosako Udalaren jabari publikoko izaera daukalarik, eta aipameneko Lankidetzarako Esparru Hitzarmenean aurreikusitakoa bete dadin, akordio honen bitartez doan utzi nahi da zentroaren eta bere ekipamenduaren erabilera, zuzeneko kontzesioaren bidez, uste delako TEE dela hura gestionatzeko dagoen entitate bakarra. Izan ere, TEEk sustatu, antolatu eta finantzatu ditu azken 20 urteotan txotxongiloaren gaineko jarduerak guztiak, Tolosa nazioarteko erreferente bihurtu delarik aipameneko jardueraren alorrean. Gainera, TEE irabazi asmorik gabeko entitatea da eta onura publikokotzat deklaratu izan da.

Beraz, oinarrituta, batetik, Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legeko 93 artikuluan eta honekin loturik dagoen 137.4 b) artikuluan, zeinak onartzen duen zuzeneko adjudakazioa, baldin eta zeszioduna irabazi asmorik gabeko entitatea bada eta onura publikokoa (eta hori da TTEren kasua), eta bestetik, Ondasunen Erregelamenduko 74 artikuluan eta hurrengoetan, Udalak, aho batez, Udaltzako osatzen duten kideen gehiengo absolutuarekin,



ERABAKI DU:

Lehena.- Onartzea txostena, udal zerbitzuek idatzia eta justifikatzen duena demaniozko kontzesioa, TOPIC Nazioarteko Txotxongilo Zentroa deritzon higiezinaren erabilera pribatiborako.

Bigarrena.- Onartzea Klausula Administratibo orokor eta partikularren Agiria, Euskal Herria plazako 1 zenbakidun eraikinaren, TOPIC Nazioarteko Txotxongilo Zentroaren, eta bere instalazio eta ekipamenduaren erabilera pribatiboaren zuzeneko adjudikazio bidezko kontzesioa arautzen duena.

Hirugarrena.- Espedientea 30 egun jendurrean jarrita edukitzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Taulan jarriz, egokitzen jotzen diren alegazioak aurkezteko aukera egon dadin.

Laugarrena.- Alegaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat jotzea eta Tolosako TEEri eskaintzea Euskal Herria plazako 1 zenbakidun eraikinaren eta bere instalazio eta ekipamenduaren erabilera pribatuaren administrazio kontzesioa.

Bosgarrena.- Espedienteak behin betiko onespina jaso eta gero, alkateari delegatzea erabakitakoaren exekuzioa, zuzenbidean dagozkion ahalmen guztiak emanez, kontzesio kontratua formalizatzeko beharrezkoak diren eragiketak eta egintzak burutzeko.”

2011ko maiatzaren 31an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, espedientea jendurrean jarri zen, adieraziz onarpena behin betikoa izango zela alegaziorik egin ezear.

Jendurreko epea igaro ondoren, alegaziorik ez zen egon. Beraz, hurrengo pausua Tolosako Ekinbide Etxeari gonbidapena egitea zen. Espedientean, ordea, ez zen beste pausorik eman.

Beraz, aztertu behar da zein egoera juridikoan egongo litzatekeen espedientea:

AZTERKETA JURIDIKOA:

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena:

21. artikulua: Ebazteko betebeharra.

1. Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua. Preskripzioa, eskubideari uko egitea, prozedura iraungitzea edo eskaeran atzera egitea gertatzen denean, eta orobat prozeduraren xedea gerora desagertzen denean, kasuan-kasuan gertatutakoa adieraztea izango da ebazpena, jazoetako egitateak eta aplikatzekoak diren arauak



zehaztuta. Lehenengo paragrafoan aipatutako betebeharretik salbuetsita daude prozedura itun edo hitzarmen bidez amaitzen diren kasuak eta, orobat, erantzukizunpeko adierazpena edo Administrazioari komunikatzea beste betebeharririk ez dakarten eskubideak baliatzeari dagozkion prozedurak.

2. Ebazpen espresua jakinarazteko gehieneko epea, dagokion prozedura arautzen duen arauan zehaztutakoa izango da. Epe hori ezin da sei hilabete baino gehiago izan, non eta lege-mailako arau batek ez duen handiagoa ezartzen edo Europar Batasuneko zuzenbidean ez den hala aurreikusten.

3. Prozedurei dagozkien arauetan ezarrita ez badago, hiru hilabete izango da gehieneko epea. Epe hori eta aurreko zenbakian adierazitakoak honela zenbatuko dira:

a) Ofizioz hasitako prozeduretan, hasteko erabakiaren egunetik aurrera.

b) Interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan, izapidetzeko eskumena duen administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoa eskaera sartu den egunetik aurrera.

4. Administrazio publikoek argitaratu eta eguneratuta eduki behar dituzte webgunean, jendearen informaziorako, beren eskumeneko prozeduren zerrendak, haien gehieneko iraupenak eta administrazio-isiltasunaren ondorioak adierazirik. Betiere, administrazio publikoek interesdunei jakinarazi beharra daukate zer gehieneko epe dagoen ezarrita prozedurak ebazteko eta haiei amaiera ematen dieten egintzak jakinarazteko, eta, orobat, zer ondorio izan ditzakeen administrazio-isiltasunak. Aipamen hori sartuko da ofizioz hasteko erabakiaren jakinarazpen edo argitalpenean, edo horretarako zuzenduko den komunikazioan, zeina interesdunari igorriko baitzaio izapidetzeko eskumena duen administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoa prozedura hasteko eskaera jaso eta hurrengo hamar egunen barruan. Azken kasu horretan, komunikazioak adierazi behar du organo eskudunak eskaera zer datatan jaso duen ere.

5. Egindako eskaeren edo ukitutako pertsonen kopuruak ebazpena emateko gehieneko epea ez betetzea ekar lezakeenean, ebazteko eskumena duen organoak, instrukzio-organok –arrazoiturik– hala proposatuta, edo ebazteko eskumena duen organoaren hierarkian goragoko mailakoak, haren proposamenez, egoki eta epean bideratzeko behar diren baliabide pertsonal eta materialak jarri ahal izango ditu.

25. artikulua: Ebazpen espresurik eza ofizioz hasitako prozeduretan.

1. Ofizioz hasitako prozeduretan, gehieneko epean ebazpen espresua eman eta jakinarazi ez izateak ez du administrazioa salbuesten ebazteko betebeharririk, eta hauek izango dira ondorioak:

a) Eskubideak aitortzea edo aldeko beste egoera juridikoren batzuk sortzea erator daitekeen prozeduretan, agertu diren interesdunek administrazio-isiltasun ezetsizat jo ditzaketek beren uziak.

b) Zehatzeko ahalak edo, oro har, esku hartzeko ahalak baliatu baditu Administrazioak prozeduran, interesdunei ondorio kaltegarriak edo zorrak sorrarazteko modukoak, iraungi



egingo da prozedura. Kasu horietan, prozedura iraungi dela adierazten duen ebazpenak jarduketak artxibatzeke aginduko du, eta 95. artikuluan adierazitako ondorioak izango ditu.

2. Prozedura interesdunari inputa lekiokoen arrazoiren bategatik geldiarazi den kasuetan, hasierara itzuliko da ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epearen zenbaketa.

84. artikulua. Amaiera.

1. Prozedura amaitzeko aukerak hauek dira: ebazpena, atzera egitea, eskaeraren oinarri den eskubideari uko egitea –ordenamendu juridikoak uko hori debekatzen ez badu– eta iraungitzat deklaratzeko.

2. Prozedura amaitu egingo da, halaber, jarraitzea materialki ezinezkoa bada gerora sortutako arrazoiengatik. Ematen den ebazpenak arrazoitua izan behar du beti.

95. artikulua. Betekizunak eta ondorioak.

3. Prozedura iraungitze hutsak ez du besterik gabe ekarriko partikularren edo Administrazioaren akzioak preskribatzea, baina prozedura iraungiek ez dute geldiaraziko preskripzio-epearen zenbaketa. Preskripzioa gertatu ez delako beste prozedura bat hasteko aukera ematen duten kasuetan, prozedura horri gehitu ahal izango zaizkio iraungitzea gertatu ezean edukia berdin mantenduko zuten egintza eta izapideak. Prozedura berrian, betiere, bete beharreko izapideak izango dira alegazioak, froga-proposamena eta interesdunari entzunaldia ematea.

4. Gerta daiteke iraungitzea ez aplikagarri izatea, sortutako arazoa interes orokorrekoa bada edo arazoa mugatzeko eta argitzeko komeni bada bideratzea.

Bestalde, aplikagarriak diren beste xedapenak ondorengoak dira:

-1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, toki erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duena; 74. eta 75. artikulua eta 78.etik 91.era bitartekoak.

-33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoaren Ondareari buruzkoa; 93 eta 137.4 artikulua.

-9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (SPKL), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora; 9. artikulua eta 115.etik 155.era bitartekoak, eta Bigarren, Hirugarren eta Hamabosgarren Xedapen Gehigarriak.

Aipatutako arautegia kontuan hartuz:

Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92. artikulua eta hurrengoek ez dute aurreikuspen espezifikorik jasotzen sortutako gaiari dagokionez, eta, beraz, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea jo behar da.



Horrela, Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 21.1 artikulua, aurreko arautestuen edukiarekin bat etorritik, aurrekusten du Administrazioa behartuta dagoela berriazko ebazpena ematera eta jakinaraztera prozedura guztietan, hasteko modua edozein dela ere.

Bestalde, preskripzio-kasuetan, eskubideari uko egiten zaionean, prozedura iraungitzen denean edo eskaeran atzera egiten denean, bai eta prozeduraren xedea gerora desagertzen denean ere, ebazpena kasu bakoitzean gertatzen den inguruabarra deklaratzeko datza, jazoetako egitateak eta aplikatu beharreko arauak adierazita.

Artikulu horretako 1. paragrafoan aipatzen den betebeharretik salbuetsita daude. APAPELen 21.1 Prozedura itun edo hitzarmen bidez amaitzen den kasuak, bai eta erantzukizunpeko adierazpena edo Administrazioari jakinaraztea soilik bete behar duten eskubideak baliatzeari buruzko prozedurak ere .

Aurreikuspen horren harira, APAPELen 21.2 artikulua arabera, ebazpen espresua jakinarazteko gehieneko epea dagokion prozedura erregulatzen duen arauan ezarritakoa izango da, baina epe hori ezin izango da sei hilabetetik gorakoa izan, salbu eta lege-mailako arau batek epe luzeagoa ezartzen badu edo Europar Batasuneko Zuzenbidean hala aurrekusten bada. Kasu honetan, epe hori prozedura hasteko erabakiaren egunetik hasiko da zenbatzen, ofizioz hasitako prozedura baten aurrean gaudelako (APAPEL, 21.3 ART.).

Prozeduraren ebazpen espresurik ez badago, APAPELen 25.1 artikulua arabera, ofizioz hasitako prozeduratan, ezarritako gehieneko epea berriazko ebazpenik eman eta jakinarazi gabe amaitzek ez du salbuesten Administrazioa ebazteko legezko betebeharra betetzetik, eta ondorio hauek izango ditu:

A) Eskubideak edo aldeko beste egoera juridiko batzuk aitortzea edo, hala badagokio, eratzeko ezarritako prozeduren kasuan, agertu diren interesdunek beren asmoak administrazio-isiltasunez ezetsitzat jo ahal izango dituzte.

B) Administrazioak zehatzeko ahalak edo, oro har, esku hartzeko ahalak baliatzen dituen prozeduratan, ondorio kaltegarriak edo kargak ekar badituzkete, prozedura iraungi egingo da. Kasu horietan, iraungitzea adierazten duen ebazpenak jarduketak artxibatzeke aginduko du, 95 APAPEL.

Beraz, kasu honetan, Administrazioak, izapidetutako herri-jabariko emakidaren lizitazio-prozeduraren aurrean, prozedura iraungitzat jo behar du eta egindako jarduketak artxibatzeke behar ditu, hargatik eragotzi gabe beste prozedura bat hastea, ondasunaren egoera juridikoa araztu ondoren, hau da, hirugarren batek hura gaitzen duen titulurik gabe erabili dezan saihestea, planteatutako kontsultan gertatzen den bezala, eta, hala ere, kontsulta egiteko behar diren prozedura berriak gorde behar dira.

Hala, gaitzen duen titulurik gabeko jabari publikoko ondasuna erabiltzen ari den hirugarrena "prekarioa" modalitatean ari da hartaz gozaten. Kontzeptu hori erabili da juridikoki inolako titulurik ez duen egoera bati erreferentzia egiteko, eta geroko edozein aldaketaren mende egon daiteke, Auzitegi Gorenaren 2005eko martxoaren 9ko epaiak argudiatzen duen bezala.



Zentzu horretan, jurisprudentziak prekarioaren kontzeptuaren barruan bereizi ohi ditu "emandako edukitza", "Jabetza toleratua" eta "titulurik gabeko edukitza" kasuak; hala, Auzitegi Gorenak onartu izan du, prekarioaren kasu tradizionalarekin batera, aldeetako batek beste bati dohainik ematen diola etxe bat edo eskubide bat erabiltzea, emakida ezeztatzeko aukera ematen diotenak, komenigarritzat jotzen duenean, edozein kontzepturen gainean egindako edozein egoera barne hartuta ere, gerora egiten den moduan.

Beraz, Administrazioak ondorioz gabe utzi behar du prekario-egoera, herri-jabariko emakida berria lizitatzeko, herri-administrazioen ondarearen kudeaketari buruzko araudi aplikagarriaren arabera.

Konklusioak:

-Udalak, izapidetutako herri-jabariko emakidaren lizitazio-prozeduraren aurrean, prozedura iraungitza jo behar du eta egindako jarduketak artxibatu behar ditu, hargatik eragotzi gabe beste prozedura bat hastea, , hau da, hirugarren batek hura gaitzen duen titulurik gabe erabil ez dezan.

- Administrazioak gorde egin ditzake iraungitza deklaratzeko den prozeduran emandako egintzak, hasi beharreko prozeduran erabiltze aldera.

- Gaitzen duen titulurik gabeko jabari publikoko ondasuna erabiltzen ari den hirugarrena ondasun horretaz baliatzen ari da prekarioan, eta kontzeptu hori erabili da juridikoki inolako titulurik ez duen egoera bati erreferentzia egiteko.

- Administrazioak ondorioz gabe utzi behar du prekario hori, herri-jabariko emakida berria lizitatzeko, herri-administrazioen ondarea kudeatzeko aplikatu beharreko araudiaren arabera.

Tolosako Udaleko Herritarrak Batzordeak, 2021eko irailaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko botoak:** Nerea Letamendia, Izarne Iglesias, Joseba Ormazabal, Jose Mari Villanueva, Aitzol Gartzia, Kristina Pelaez eta Xabier Martinez.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

Lehena- Ondorengo Prozedura iraungitzea: Topic dagoen eraikinaren erabilera pribatiborako demaniozko kontzesioa espediente (Udalbatzak bi mila eta hamaikako maiatzaren hamabian egin zuen osoko bilkuran onartu zuena).



Bigarrena- TOPIC dagoen eraikinaren erabilera pribatiborako demaniozko kontzesio espedientea berriero hasia, Prozedura horretan sartu ahal izango dira iraungitza deklaratu den prozeduran emandako dokumentuak edo egintzak.

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udaltzaren aho batez **onartu** du Topic dagoen eraikinaren erabilera pribatiboari demaniozko kontzesio espedientearen iraungitzea.

17.BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA ASUNCION KLINIKAREN ERAIKINA HANDITU AHAL IATEKO XETESASUN AZTERLANARI.

LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEKO 2021EKO IRAILAREN 22KO IRIZPENA

AURREKARIAK

Dokumentua	Data/Zk.	Oharrak
Xehetasun-Azterlana	2021/05/11	
GFA Bide Azpiegituretako Departamentuaren txostena	2021/05/27	Aldekoa
Txosten teknikoa Tokiko Gobernu Batzarrerako akordio proposamena	2021/06/18	Aldekoa baldintza partikularrekin
Hasierako onespeneraren ziurtagiria	2021/06/23	Hasierako onespenera baldintza partikularrekin
Jakinarazpena interesdunari	2021/06/29	
Iragarkia GAO eta hedadura handieneko egunkarietan	2021/07/6-7-8	
Iragarkia jendaurrean udaleko iragarki taulan	2021/7/6 2021/08/04	
Eskatutako baldintzak betetzen dituen dokumentazioa osagarria	2021/07/29	



Txosten teknikoa	2021/08/10	Aldekoa baldintza partikularrarekin
Alegazioen ziurtagiria	2021/08/19	

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Aurrekariak ikusirik, espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetza jarraitu du eta behin-betiko onespena Udalbatzarrari dagokio, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98.3 artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2021eko abuztuaren 10ean, Udal arkitektoak egindako txostenean, laburbilduz, honako proposamena egin zuen:

“LEHENENGOA: *Asuncion klinikaren eraikina handitu ahal izateko Xehetasun azterlanari (2021eko uztailaren 29an aurkeztutakoari) BEHIN-BETIKO ONESPENA EMATEA, baldintza partikular honekin:*

- *Xehetasun Azterlanean gehienezko lerrokadurak definitu dira, HAPOn ezarritako gehienezko eraikigarritasuna ezingo da inolaz ere gainditu. Obra baimena lortzeko aurkezten den proiektuan justifikatu beharko da zehaztapan hau betetzen dela.*

BIGARRENA: *Obra baimena lortzeko aurkezten den proiektuan aztertu eta zehaztu beharko da, besteak beste, eraikinaren inguruko urbanizazioa eta sarrera-irteeren funtzionamendua eta justifikatu egin beharko dira proposamenak ondo ebazten dituela klinikaren inguruan sortzen diren mugikortasun modu guztiak eta hauen arteko elkarreragina eta baita irisgarritasun araudia betetzen dela ere”.*

Tolosako udaleko Lurralde Batzordeak, 2021eko irailaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Egoitz Sorozabal Iturain, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Patxi Amantegi Zubiria, Jose Mari Villanueva Telleria.

Abstentzioak: Andu Martinez de Rituerto, eta Aitzol Garcia.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Asuncion Klinikaren eraikina handitu ahal izateko, Xehetasun Azterlanari (2021eko uztailaren 29an aurkeztutakoari) behin-betiko onespena ematea.



BIGARRENA.- Obra baimena lortzeko aurkezten den proiektuan justifikatu beharko da HAPOn ezarritako gehienezko eraikigarritasuna ez dela inolaz ere gainditu eta, beraz, betetzen dela.

HIRUGARRENA.- Obra baimena lortzeko aurkezten den proiektuan aztertu eta zehaztu beharko da, besteak beste, eraikinaren inguruko urbanizazioa eta sarrera-irteeren funtzionamendua eta justifikatu egin beharko dira proposamenak ondo ebazten dituela klinikaren inguruan sortzen diren mugikortasun modu guztiak eta hauen arteko elkarreragina eta baita irisgarritasun araudia betetzen dela ere.

LAUGARRENA.- Lehenengo erabakian aipatzen den Xehetasun Azterlana Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, Hirigintzako Plangintzako Administrazio Erregistroan gordailutu dezan, argitaratu baino lehen.

BOSGARRENA.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin-betiko onespeneren erabakia, onartutako dokumentatuaren arau-zehaztapenekin batera eta baita Xehetasun Azterlana Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan jaso izanaren agiria ere.

SEIGARRENA.- Behin-betiko onartzeko erabakia argitaratzea Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapen handiena duen egunkarian edo egunkarietan.

ZAZPIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Abstentzioa: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz onartu du Asuncion Klinikaren eraikina handitu ahal izateko, Xehetasun Azterlanari (2021eko uztailaren 29an aurkeztutakoari) behin-betiko onspena ematea.



18.ONARTZEA LANKIDETZA-HITZARMENA, ASUNCIÓN KLINIKAKO SANEAMENDU PRIBATUA ETA IZASKUNGO ALDAPAKO SANEAMENDU-SARE PUBLIKOA HOBETZEKO XEDEA DUENA.

**LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEKO 2021EKO IRAILAREN 22KO
IRIZPENA**

AURREKARIAK

Uraren Euskal Agentziak 2020ko uztailearen 29an idatzi bat bidali zion Tolosako Udalari, salatzeko N1 errepidean, 436,3 kilometro-puntuan, euri-uren estoldara ur beltzak isurtzen zituztela eta Asuncion klinikakoak zirela ur beltz horiek. Era berean, 2020ko irailaren 30era arteko epea eman zitzaion Udalari egoki zeritzona adierazteko eta arazoari irtenbidea emateko hartu beharreko neurrien berri emateko.

Gipuzkoako Ur Kontsortzioak, 2020ko irailaren 30eko idatzian, ziurtatu zuen Asuncion klinikako hartunea instalazio pribatu bat dela, eta instalazio horren isurketa baimentzeko baldintza izan dela klinikak sistema bereizle bat ezartzea, hodi bakar gisa funtzionatu baitu. Tolosako Udalak, 2020ko irailaren 30eko idazki baten bidez, Asuncion klinikari eskatu zion saneamendu-kolektorea urgentziaz konpon zezala, eta HILABETEKO epea eman zion proiektua aurkezteko eta egin beharreko obraren baimena eskatzeko. Halaber, ohartarazi zuen, konponketa hori egin ezean, Udalak modu subsidiarioan gauzatuko zuela Asuncion klinikaren kontura.

Errekerimendu hori bera egin zuen Gipuzkoako Ur Kontsortzioak, eta irtenbide tekniko bat proposatu zuen: hinka izeneko sistema bidez lotzea klinikako saneamendu-sarea eta N-1 errepidearen beste aldean dagoen udal-sarearen kontrol-kutxatila.

Asuncion klinikaren ordezkariak, Tolosako Udalak eta Ur Kontsortzioak egindako errekerimendua ikusita, 2020ko urriaren 23an idatzi bat aurkeztu zuen, non adierazi zuen N-1 errepideari eragiten dion konponbidea bideraezina zela, Foru Aldundiak (bide sarearen titularra) ez baitzuen baimentzen. Aldiz, klinikako saneamendu-sarea Izaskungo errepidean barrena (udal titulartasunekoa da) Santa Klarako konexioraino eramatearen alde agertu zen, eta adierazi zuen erakunde hori erabat prest zegoela konponbide hori finantzatzen laguntzeko.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Aurrekariak ikusirik, lankidetzaz hitzarmen espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetza jarraitu du eta behin-betiko onespina Udalbatza Plenoarena da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Halaber, aipaturiko Legearen 47.2.h) artikuluan xedaturikoa kontuan harturik, hitzarmenaren onspenak korporazioko



kideen gehiengoaren aldeko botoa behar du, udalari dagozkion funtzioak edo jarduerak sektore publikoko beste erakunde bati eskualdatzea baitakar.

2021eko abuztuaren 3an, hirigintza buruak egindako txostenean, laburbilduz, honakoa ondorioztatu zuen:

“Ondorioz, goian esandakoari jarraiki, Tolosako Udalak, Gipuzkoako Urak SAK eta Asuncion klinikak beren gain hartuko dituzten elkarrekiko konpromisoak ezartzeko hitzarmena izapidetzea proposatzen da; hau da, proiektua idazteko eta obrak finantzatu eta gauzatzeko, bai Asuncion klinika, bai sare berrira konekta daitezkeen higiezinak sarearen saneamendu publikoarekin lotzeko”.

2021eko abuztuaren 7an, Udal Idazkariak egindako txostenean, laburbilduz, honako proposamena egin zuen:

“**LEHENA.-** Onartzea Izaskungo aldapa eremuko saneamendu-sare publikoa eta Asuncion Klinikaren saneamendu-sare pribatua hobetzeko xedea duen Lankidetzaz Hitzarmena, Tolosako udalaren, Gipuzkoako Urak S.A,ren eta INVIZA, S.A.ren artekoa, honako baldintzekin:

- **Hitzarmenak egin beharreko esku-hartzeak zehaztu beharko ditu, baita hitzarmena sinatu duten alderdietako bakoitzaren erantzukizuna ere, finantzaketari dagokionez, modu argi eta zehatzean.**
- **Alderdietako bakoitzak bere gain hartzen dituen konpromiso ekonomikoak zehaztu behar dira, baita obra gauzatzeko eragin ditzakeen aldaketan muga ere.**
- **Hitzarmenaren zaintza eta jarraipenerako mekanismoa, 40/2015 Legearen 49.f) artikuluan xedatutakoaren arabera.**
- **Hitzarmenaren gehieneko indarraldia zehaztu behar da.**

BIGARRENA.- Alkate-Udalburuari ahalmena ematea, aipatu hitzarmena, eta berau egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpe ditzala.

HIRUGARRENA.- Hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan, web orrian eta gardentasunaren atarian argitaratzea.

LAUGARRENA.- Erabaki hauek interesatuei jakinaraztea.”

2021eko irailaren 15an, Jarduneko Kontuhartzaileak egindako txostenean, laburbilduz, honakoa ondorioztatu zuen:

“1.- Hitzarmenean zehaztu gabe daude obra gauzatzeko aurreikusten diren kostuak eta epeak:

- obraren proiektua
- exekuzioia
- exekuzioari lotutako gainerako kostuak (obra zuzendaritza, segurtasuna ...)

Eta zehaztu gabe daude ere, alderdi bakoitzak hartzen dituen konpromiso ekonomikoak, aurreikusten diren kostuak eta, bere kasuan, sor daitezken aldaketak finantzatzeko.



Udalaren kasuan, zenbateko hori zehaztu bitartean, ezin da adierazi kreditu nahikoa eta egokia dagoen gastuari aurre egiteko.

2.- Eskuduntza duen organoari egiten zaio proposamena, hau da, Udalbatzari, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikulua dioenaren arabera.

3.- Hitzarmenaren gehieneko iraupena zehaztu behar da, gehienez ere lau urtekoa.

4.- Lege txostenak Hitzarmen proposamena onartzen du baina baldintzatuta”.

Hau dela eta, espedientearen izapidetzearekin jarraitzeko beharrezkoa da alderdien konpromiso ekonomikoak zehaztea eta lege txostenean aipatutako baldintzak betetzea”.

2021eko irailaren 17an, Udal Idazkariak egindako txostenean, laburbilduz, honakoa ondorioztatu zuen:

“LEHENA.- *Ontzat ematen ditut Izaskungo aldapa eremuko saneamendu-sare pribatua hobetzeko xedea duen Lankidetzeta-Hitzarmenean, Tolosako udalaren, Gipuzkoako Urak SAREN eta INVIZA SAREN artekoa, egindako aldaketak.*

BIGARRENA.- *Espedientearen izapidetzearekin jarraitzea proposatzen dut”.*

2021eko irailaren 21ean, Jarduneko Kontuhartzaileak txostena egin zuen ontzat emanez egindako aldaketak eta, besteak beste, honakoa adierazi zuen:

“Datu hauen arabera, 2021eko aurrekontuan ez dago kreditu nahikoa eta egokia proposatzen den 213.328,87 euroko gastuari aurre egiteko 0700.623.06.160.00 partidan. Zenbateko horretan, egon daiteken %10eko igoera ere sartu da.

Beraz, gastuaren onarpena momentu honetan tramitatzen ari den kreditu aldaketa onartzearen baldintzapean egongo da.”

Ondoren, 2021eko irailaren 21ean 2021/1566 zenbakidun alkate dekretu bidez udaleko aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente onartu da aipatutako gastuari aurre egiteko.

Tolosako udaleko Lurraldea Batzordeak, 2021eko irailaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Egoitz Sorozabal Iturain, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Patxi Amantegi Zubiria, Jose Mari Villanueva Telleria, Andu Martinez de Rituerto, eta Aitzol Garcia.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:



IRIZPENA

LEHENA.- Onartzea Izaskungo aldapa eremuko saneamendu-sare pribatua hobetzeko xedea duen Lankidetzeta-Hitzarmena, Tolosako udalaren, Gipuzkoako Urak SAren eta INVIZA SAren artekoa, honako estipulazioen arabera:

“LEHENA.- XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Tolosako Udalak, Gipuzkoako Urak SAK eta Asuncion klinikak beren gain hartuko dituzten elkarrekiko konpromisoak ezartzea, proiektua idazteko eta obrak finantzatu eta gauzatzeko, bai Asuncion klinika, bai sare berrira konekta daitezkeen higiezinak sarearen saneamendu publikoarekin lotzeko.

Hain zuzen ere, hitzarmen honen bidez, jarduera hauetarako baldintzak eta konpromisoak arautzen dira:

- 1.- Obra-proiektua idaztea. Adjudikazioa, onarpena eta finantzaketa.*
- 2.- Obrak gauzatzea. Lizitazioa, adjudikazioa, zuzendaritza eta finantzaketa.*

BIGARRENA.- ALDEEN BETEBEHARRAK OBRA-PROIEKTUARI DAGOKIONEZ

1.- Gipuzkoako Urak SAK konpromisoa hartzen du obren proiektuaren idazketa kontratatzeko lizitazio-prozedura hasteko, hilabeteko epean, hitzarmen hau formalizatzen denetik zenbatzen hasita, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen zehaztapenak errespetatu beharko ditu. Proiektua idazteko epea bi hilabetekoa izango da.

2.- Gipuzkoako Urak SAK, proiektua idazteko ezarritako baldintzetan, exijituko du idazten den proiektuan bereiztea alde bakoitzak, alegia, Gipuzkoako Urak SAK, Tolosako Udalak eta Asuncion klinikak, ordaindu beharreko obrak eta aurrekontu-partida. Alde bakoitzak ordaindu beharreko obren arabera, partaidetza ehuneko bat ezarriko da.

3.- Gipuzkoako Urak SAK proiektua onartu aurretik, Tolosako Udalarari eta Asuncion klinikari bidali beharko die, hamabost eguneko epean ekarpenak egin ditzaten.

4.- Gipuzkoako Urak SAK 15 eguneko epean onartuko du proiektua, aipatutako iradokizunak igortzen diren egunetik edo, iradokizunik egiten ez bada, emandako epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

5.- Hitzarmen hau sinatzen duten alderdiek finantzatuko dute proiektuaren idazketa, obra-proiektuan ezarritako ehunekoaren arabera. Ehuneko horiek alde bakoitzak



finantzatu behar dituen obren aurrekontuarekiko proportzionalak izango dira.

6.- *Gipuzkoako Urak SAK faktura igorriko die Tolosako Udalari eta Asuncion klinikari, eta hirurogei eguneko epea emango die ordainketa egiteko.*

HIRUGARRENA.- ALDEEN BETEBEHARRAK OBRAK GAUZATZEARI ETA ZUZENTZEARI DAGOKIENEZ

1.- *Gipuzkoako Urak SAK konpromisoa hartzen du lehen estipulazioan aipatutako saneamendu-obren gauzatzea eta zuzendaritza kontratatzeke lizitazio-prozedura hasteko bi hilabeteko epean, obra-proiektua onartzen denetik zenbatzen hasita, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen zehaztapenak errespetatu beharko ditu.*

2.- *Aldeek konpromisoa hartzen dute obren exekuzioa, zuzendaritza eta exekuzio egokiaren ondoriozko gainerako kostuak ordaintzeko, sor daitezkeen obra-desbideratzeak barne, alde bakoitzari dagokion eta onartutako proiektuan jasota dagoen aurrekontuaren arabera.*

Proiektuan zehaztuko da alde bakoitzari ordaintzea dagokion kostua, bakoitzaren eskumenak kontuan hartuta: batetik, Gipuzkoako Urak, S.A.ri dagokio Tolosako Izaskungo Aldapako ur beltzen saneamendu-sare publikoko sarearen obrari dagokion atala finantzatzea; bestetik, Tolosako Udalari dagokio Izaskungo aldapako euri-uren saneamendu publikoko sarearen obrari dagokion atala eta, azkenik, Asuncion Klinikari klinikaren saneamendu-sare pribatuaren obrari dagokion atala.

3.- *Asuncion klinikak bermatuko du egin beharreko obrak finantzatzeko proiektuaren arabera dagokion zenbatekoa. Ondorioz, abal bat jarriko du Gipuzkoako Urak Saren alde, lizitazio-prozedura hasi aurretik. Obra-kontratua adjudikatu ondoren, abalaren zenbatekoa kontratistari esleitutako zenbatekoaren arabera doitu ahal izango da. Abala lehenengo errekerimenduan betearazi ahal izango da, eta banketxeak berariaz uko egin beharko die zatiketa-, ordena- eta eskusio-onurei, edozein motatako salbuespenei uko eginez.*

4.- *Asuncion klinikak eta Tolosako Udalak, Gipuzkoako Urak SAK igorritako obra-ziurtagirien arabera, erakunde horri dagokion zenbatekoa ordainduko dute hirurogei eguneko epean.*

5.- *Baldin eta Asuncion klinikak ez badu eskatutako zenbatekoa ezarritako epean ordaintzen, Gipuzkoako Urak SAK gordailatutako abala exekutatu du, obrak bermatzeko. Abala osorik exekutatu da lehenengo ez-ordaintzetik aurrera, eta zenbateko ekonomikoa atxiki*

6.- *Proiektuan ezarritako diru-zenbatekoa gutxi gorabeherakoa izango da, izan ere, behin betiko zenbatekoa obrak amaitu eta ziurtatu ondoren zehaztuko da.*



7.- Obra gauzatzeko gutxi gorabeherako epea hamar hilabetekoa izango da. Dena den, epe hau obra-proiektuan zehaztuko da.

LAUGARRENA.- ALDEEK BEREN GAIN HARTUTAKO BESTE KONPROMISO BATZUK

Tolosako Udalak eta Asuncion klinikak proiektua idazteko eta obrak gauzatzeko

behar den dokumentazio guztia emango diote Gipuzkoako Urak SArI, eta proiektuaren eraginpean dauden bere titulartasuneko lurzoruak jarriko dituzte haren eskura.

Gipuzkoako Urak SAk bere gain hartuko du obrak behar bezala gauzatzeko erantzukizuna.

Asuncion klinikako obrek eta Udalari dagokion euri-uren saneamendu-instalazioak, hitzarmen honen esparruan egingo direnak, ez dute eraginik izango Gipuzkoako Ur Partzuergoak, bere sozietate publikoaren bidez, Tolosako udalerrian egin behar dituen inbertsioetan.

BOSGARRENA.- FINANTZAKETA

Hitzarmen honen xede diren obrak gauzatzeko eta proiektua idazteko gutxi gorabeherako kostua 678.459,60 €-koa izango da (BEZa barne). Zenbateko horri eragingo diote, hala badagokio, esleipen-bajek, zuzendaritza fakultatiboaren kostuak eta laguntza tekniko osagarriek, prezioen berrikuspenek, aldaketek eta, oro har, kontratuen garapenean gerta daitezkeen gorabeherak.

Hitzarmen honetan aurreikusitako zenbatekoa gainditzen bada, igoera % 10etik beherakoa bada, alderdi sinatzaile bakoitzak hartuko du bere gain, dagozkion ehunekoen arabera. % 10 gainditzen bada, Hitzarmenaren gehigarri bat sinatu beharko da, hitzarmenaren antzera izapidetuko dena.

Alde bakoitzak honako gutxi gorabeherako kostuak hartuko ditu beragain:

- *Gipuzkoako Urak, S.A.-ak: 193.935,34 €*
- *Tolosako Udalak: 193.935,34 €*
- *Asuncion Klinikak: 290.588,92 €*

SEIGARRENA.- JARRAIPIEN-BATZORDEA

Alderdiek beren gain hartutako betebeharrak betetzen direla eta bertan jasotako jarduerak behar bezala gauzatzen direla zaintzeko, Jarraipen Batzorde bat sortuko da.



Batzorde hori gutxienez 3 ordezkari osatuko dute: hitzarmen hau sinatzen duen alderdi bakoitzeko ordezkari batek edo horiek izendatzen dituzten pertsonak, hain zuzen ere.

ZAZPIGARRENA.- EZ-BETETZEEN ONDORIOAK

Hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoiak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2 artikuluan ezarritakoez gain, honako hauek dira:

1.- Asuncion klinikak ezarritako epean ez ordaintzea obra-proiektua idazteagatik ordaindu behar duen zenbatekoa.

2.- Asuncion klinikak abala ez gordailutzea obrak hasi aurretik.

Hitzarmen hau suntsiarazten bada, Tolosako Udalak obrak subsidiarioki exekutatu ditu, dagokion espedientea izapidetu ondoren, Asuncion klinikaren kontura, 39/2015 Legearen 102. artikulua aplikatuz.

ZORTZIGARRENA.- HITZARMENAREN IZAERA ADMINISTRATIBOA

Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta, bertan xedatutakoaz gain, zuzenean edo analogiaz aplika daitezkeen Administrazio Zuzenbideko arauak arautuko dute.

Hitzarmen honetatik sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren pean jarriko dira, izaera juridiko-administratiboa dutelako.

BEDERATZIGARRENA.- ONDORIOAK, IRAUPENA ETA AZKENTZEA

Hitzarmenak, hasiera batean, bi urteko indarraldia izango du, baina aldeek hala nahi izanez gero, luzatu ahal izango da, baldin eta hitzartutako konpromisoak ez badira erabat bete.

Hitzarmena azkendu egingo da indarraldia amaitzen denean, helburuak erabat betetzen direnean, edo aldeetako batek bere gain hartutako konpromisoak bete ez dituelako hitzarmena suntsiarazten denean.

HAMARGARRENA.-HITZARMENAREN BALIOZKOTASUNA

Hitzarmen hau alderdien adostasunarekin burutuko da.”



BIGARRENA.- Onartzea hitzarmen honen ondoriozko gastua 2021eko ekitaldirako, eta honako aurrekontu-partida honi egoztea: 0700.623.06.160.00.

HIRUGARRENA.- Alkate-Udalburuari ahalmena ematea, aipatu hitzarmena, eta berau egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpe ditzala.

LAUGARRENA.- Hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan, web orrian eta gardentasunaren atarian argitaratzea.

BOSGARRENA.- Erabaki hauek interesatuei jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du lankidetzeta-hitzarmena, Asunción klinikako samenamendu pribatua eta Izaskungo Aldapako saneamendu sare publikoa hobetzeko xedea duena.

19.TOLOSAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAKO 24. IURRE HIRIGINTZA ESPARRUKO ALDAKETA PUNTUALARI BURUZKO ESPEDIENTEA HASTEA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEKO PROGRAMA ONARTZEA.

I.-AURREKARIAK:

2020ko urriaren 28ko 1719 zenbakidun dekretuan Tolosako udalerrian eskualdeko ospitale bat kokatzeko aukeren hirigintza azterketaren idazketa Sabai Arkitektoak, S.L.P enpresari esleitzea erabaki zen.

Bertan, erabilera horretarako udalerrian dauden eremuen aukeren azterketa egin da, beharrezko lurzoruaren okupazioaren planteamendua eta mugikortasun eta konektibitate azterketak barneratuta. Eta Udalaz gaindiko Plangintzaren eta beste Administrazioen Araudi Aplikagarrien eragina ere aztertu da. Baita hirigintza-kudeaketaren ezaugarriak ere.

Laburpen modura, aukera posibleen arteko konparaketa bat ere egin da aurretik aipatutako parametroak kontuan hartuta.

Azterketaren lehen fasean aztertutako hamahiru kokapen-aukeretatik bieragarritasun-maila altuena duten lau kokapen ondorioztatu ziren.




Ondoren, Tolosako Udalak Azterketaren lehen faseko dokumentua Osakidetzari helarazi zion Tolosalderako duen plan funtzionalaren arabera lekuri egokiena aukeratzeko. Hala, aipatu administrazioak lekuri egokiena lurramendi ingurukoa zela adierazi zuen.

Behin Osakidetzaren iritzia ezagututa Udalak azterketaren bigarren faseari ekin zion eta lehen faseko azterketan bieragarritasun-maila altuena lortu zuten lau kokapen-aukerak berriro baloratu ziren. Tolosako udalerrian eskualdeko ospitale bat kokatzeko aukeren behin-betiko dokumentua idaztea izan da lanaren bigarren fasearen helburua. Zehazki, aurreko faseko aukerak osatu eta zehaztuz. **Azterketaren ondorioen arabera kokapen-aukerarik egokiena lurramendikoa izan da.**

Tolosako Udalbatzak, 2009ko martxoaren 3an egindako ohiko bilkuran hartutako erabakiaren bitartez onartu zen behin-betikoz Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorren Testu Bategina, 2009ko urtarrilekoa.

Hirigintza dokumentu horren arabera eskualdeko ospitalea kokatu nahi den gunea 24.lurre hirigintza esparruan dago. Esparruko lur guztiak hiri-lurzoru gisa sailkatuta daude eta bertako kalifikazio globala A.20 Eraikuntza Irekiko Bizitegi Zonak, E.10 Bide Komunikazioen Sistema Orokorrak, F.10 Espazio Libreen Sistema Orokorrak eta G.00 Ekipamendu Komunitarioko Sistema Orokorrak osatzen dute. Ospitalea kokapena batez ere F.10 eta G.00 kalifikazioa duten lursailetan aurreikusten da.





HAPOn ez zen gune horretan eskualdeko ospitalea kokatzeko beharra aurreikusi. Beraz, gaur egungo antolamendua aldatu beharko litzateke eskualdeko ospitale berria bertan kokatzeko.

Hala, Udal Gobernuak Plangintza Orokorra aldatzeko prozedura abian jartzeko eskaera egin du.

Ondorioz, egindako eskaerari eta HAPO aldatzeko espediente bat izapidetzeko jarraitu beharreko prozedurari buruzko txosten tekniko-juridikoa idatzi zen 2021eko uztailaren 15ean.

2021eko irailaren 17an Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Osoko Bilkura egin da.

II.- AZTERKETA TEKNIKO-JURIDIKOA:

2021eko uztailaren 15ean idatzitako txosten tekniko-juridikoan honakoan jasotzen zen:

"II.1.- HAPO aldatzeko espedientea bultzatzeko justifikazioari dagokionez:

Udal plangintzaren aldaketa zehatz bat bultzatzeak, interes publikoa aitortu beharra dakar, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 4. artikuluan ezartzen den bezala.

Asunción Klinika 1967an sortu zen eta 60 urte baino gehiago daramatza Tolosaldeko osasuna zaintzen. Klinika ginekologiko txiki gisa hasi zenetik, urteak joan ahala zentroa eskualdeko behar eta egoera berrietara egokitu da. 22 ohetarako edukiera duen klinika txiki izaten hasi zena, gaur egun, asistentzia-gune bat da, eta urtean 85.000 kontsulta baino gehiago artatzen ditu, eta 500 paziente ospitaleratuta izaten ditu.

Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailarekin sinatutako hitzarmenari esker Eskualdeko Ospitale bezala funtzionatzen du eta, 30 udalerritan banatuta 70.000 biztanleri osasun-estaldura ematen dio.

Andoaingo, Villabona-Amasako, Tolosako, Ibarako eta Alegiako hainbat anbulatoriotan osatzen da eskualdeko osasun-zerbitzua.

Une honetan, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saila, Tolosan eskualdeko ospitale berri bat eraikitzeak aukera birplanteatzen ari da. Hala, 2021eko martxoaren 22 Osakidetza Zuzendari Nagusiak izenpetutako idatzian adierazi da aipatu kokapenean zentro asistentzial berria kokatzeko asmoa.

*Ondorioz, eta azaldutako guztiagatik, baieztatu dezakegu **behar bezala justifikatzen dela "interes publikoa"** 24. lurre hirigintza esparruan Hiri Antolamenduko Plan orokorra aldatzeko espedientea bultzatzeko.*

II.2.- Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko espedientea bultzatzeko jarraitu beharreko prozeduraren azterketa juridikoa



Aurrekarietan aipatu den moduan, HAPOn ez zen 24. lurre hirigintza esparruan eskualdeko ospitalea kokatzeko beharra aurreikusi. Beraz, gaur egungo egiturazko antolamendua aldatu beharko litzateke eskualdeko ospitale berria bertan kokatzeko. Besteak beste, gune horretako kalifikazio globala aldatu beharko dela aurreikusten da. Izan ere, ospitalea kokatu nahi den gunearen zati bat G.00 Ekipamendu Komunitarioko Sistema Orokorrak bezala kalifikatua badago ere, lursail hori ez dela nahikoa izango uste da eta ondorioz G.00 Ekipamendu Komunitarioko Sistema Orokorra azalera handitu egin beharko da. Bestalde, ekipamenduaren eraikigarritasun fisikoa handitu egin beharko da gaur egun gune horrek ez baitu eraikigarritasun fisikorik. Gainera, lurramendi egoitzaren gertutasuna ikusita bi ekipamenduen arteko lotura edo harremana ere aztertu beharko da.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 53.1.c) eta 53.1.f) artikulua aplikatuz, kalifikazio globala eta sistema orokorren sarea aldatzea egiturazko hirigintza-zehaztapen bat da, eta, beraz, plangintza orokorrean jaso beharko da. Ondorioz, Tolosako HAPO aldatu egin behar da.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 104. artikulua xedatzen duenez, hirigintza-zehaztapenak berrikusteko eta aldatzeko espedienteak izapidetzeko, **haiek onartzeko jarraitutako prozedura bera bete beharko da.**

Plan Orokorra izapidetzea eta onartzea aipatutako legezko xedapenaren 90. artikuluan eta hurrengoetan arautzen da, eta nabarmentzekoa da Plan Orokorra egitea Udalarri dagokiola, eta hura egiten hastea erabaki behar dela.

Artikulu horren 1. zenbakian honako hau ezartzen da:

“1.- Udalarri dagokio plan orokorra egitea. Egitea erabakitzen denean, informazioa **eskatuko zaie** Eusko Jaurlaritzan eta dagokion foru-aldundian babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta naturguneen alorreko eskumenak dituzten organoei, arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko. Informazio hori emateko, bi hilabeteko epea egongo da, eta justifikazio tekniko eta juridikoarekin batera emango da.”

Bestalde, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 108. artikulua honako hau ezartzen du:

“ **Egiturazko antolamenduaren plangintzako figura oro egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa** finkatu beharko da. Programa hori udalerraren ezaugarrietan oinarrituko da, eta herritarrek eta elkarteek planaren taxuketan behar bezala parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak jasoko ditu. Mekanismo horien artean honako hauek egongo dira:

- Jendaurreko bilkurak. Aurrerakinaren edukia azaltzeko egingo dira, batez ere hiria eraikitzeko erabaki estrategikoak eta erabaki horiei buruz espedientearen tramitazioan aurkeztutako alternatibak azaltzeko.
- Udal barruko herri-kontsulta. Planean sartutako konturen bati buruz herritarren artean eztabaida larriak daudenean egingo da, toki-araubideari buruzko oinarritzko legerian finkatutako prozedurari jarraituta.
- Zabalkunderako materiala. Hirigintza-tresnetarako legez eskatutako agiriarekin batera



prestatu beharko da, agiri horiek jendeak errazago ezagutu eta ulertu ditzan.”

Ilido beretik, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. artikulua 1. atalean ezartzen du Planaren berrikuspena formulatzeko erabakiarekin batera parte hartzeko programa bat aurkeztu beharko dela. Plan horretan, behar adina helburu, estrategia eta mekanismo ezarriko dira, herritarrek eta elkarteek parte hartzeko duten eskubidea izan dezaten.

*Herritarrek parte hartzeko programa hori **Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion lurralde historikoko aldizkarian argitaratuko da labur-labur**, informazioaren teknologia berrietan zabalduko da eta, gutxienez, parte hartzeko mekanismo hauek izango ditu:*

- a) Parte hartzeko gida bat, herritarrek parte hartzeko prozesuaren jarraibideak eta edukiak ez ezik, xehetasunak ere deskribatuko dituen; horretaz gain, parte hartzeko abiapuntu gisa erabiliko diren edukien laburpena bilduko da gida horretan.*
- b) Jendaurreko bilkurak, non azalduko baitira ekimenaren edukia eta espedientea izapidetzean aurkeztutako alternatiba posibleak.*
- c) Dibulgazio-materiala: legediak eskatutako dokumentuekin batera prestatu beharko da, dokumentu horiek hedatzen eta ulertzen laguntzeko.”*

Aurretik adierazi den moduan, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak, Tolosa eskualdeko ospitale berri bat eraikitzeko asmoa du. Hala, 2021eko martxoaren 22 Osakidetzako Zuzendari Nagusiak izenpetutako idatzian adierazi da aipatu kokapenean zentro asistentzial berria kokatzeko asmoa. Bestalde, udalarekin ere egin dira hainbat bilera. Une honetan eskualdeko Ospitalearen programa eta ezaugarriak lantzen ari da Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saila.

HAPOren aldaketa puntual hau aurrera eramateko honako parte-hartze programa definitu da:

- **Talde eragile bat sortuko da parte hartzeko prozesua diseinatu, koordinatu eta jarraipena egiteko.** Bertan honako erakundeetako ordezkariak hartuko dute parte: Osakidetzak, GFAak eta Tolosako Udalak.*
- **Herritarren parte hartzeko bilera irekiak antolatuko dira.** Bilera hauek bi fase izango dituzte: lehen fasean, dokumentuaren idazketaren hasieran, diagnostiko tekniko osatzeko ekarpenak jasotzeko bilerak egingo dira. Bigarren fasean, berriz, hirigintza-dokumentuaren aurkezpena egingo da.*
- **Hirigintza-agiria herritarren eskura egongo da** Tolosako Udaleko bulegoetan eta web orrian eta ulertzeko beharrezko informazioa emango da.*

Bestalde, Tolosako Udaltzako, 2012ko martxoaren 27an egindako osoko bilkuran, hasierako onespina eman zion Tolosako Udal Plangintza Aholku Batzordearen Araudiari, indarrean zegoena bertan behera utzi ondoren. Erabaki horretan xedatu zen onartutako araudia behin betiko onartutzat joko zela, jendaurreko tramitean alegaziorik aurkeztu ezean. Jendaurreko tramitean ez zen alegaziorik aurkeztu, eta ondorioz araudia behin betikoz onartua geratu zen.

Araudi horren 4. artikulua Udal Plangintzako Aholku Batzordearen funtzioak eta xedeak zehazten dira. Horien artean, parte hartzeko programekin lotuta, hauei onarpena ematea dagokie 4.2.3. artikulua araber:



“2.3. Herritarren parte hartzea sustatzea eta bermatzea, hirigintzarekin lotutako herri galdeketak proposatzea eta **hirigintzako plangintza agiriek atxikita duten Herritarrek Parte Hartzeko Programa onartzea**, hala nola, beronen aurreikuspenak hobeto betetzen laguntzea.”

Beraz, beharrezkoa izango da aurretik deskribatu den parte hartzeko programak Udal Plangintzako Aholku Batzordearen onespena jasotzea Udalbatzak onartu baino lehen.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikulua aplikatuz, Osoko Bilkura da plangintza orokorrari buruzko erabakiak hartzeko eskumena duen organoa.

III. PROPOSAMENA:

Azaldutako guztiagatik, Udalaren Osoko Bilkurari honako erabaki hau hartzea proposatzen zaio parte hartzeko programa Udal Plangintzako Aholku Batzordeak onartu eta Lurralde Batzordeak dagokion irizpena eman ondoren:

LEHENA.- Tolosako HAPOko 24. lurre Hirigintza Esparruko aldaketa puntualari buruzko espedientea **hastea**.

BIGARRENA.- Aldaketa puntualaren prozesuko herritarrek parte hartzeko programa **onartzea**. Programak honako eduki hau izango du:

- **Talde eragile bat sortuko da parte hartzeko prozesua diseinatu, koordinatu eta jarraipena egiteko.** Bertan honako erakundeetako ordezkariak hartuko dute parte: Osakidetzak, GFAak eta Tolosako Udalak.
- **Herritarren parte hartzeko bilera irekiak antolatuko dira.** Bilera hauek bi fase izango dituzte: lehen fasean, dokumentuaren idazketaren hasieran, diagnostiko teknikoa osatzeko ekarpenak jasotzeko bilerak egingo dira. Bigarren fasean, berriz, hirigintza-dokumentuaren aurkezpena egingo da.
- **Hirigintza-agiria herritarren eskura egongo da** Tolosako Udaleko bulegoetan eta web orrian eta ulertzeko beharrezko informazioa emango da.

HIRUGARRENA.- **GAOn argitaratzea** Tolosako HAPOko 24. lurre Hirigintza Esparruko Aldaketa puntualaren Herritarren Partaidetzarako Programa, eta informazioaren teknologia berrien bidez zabaltzea.

LAUGARRENA.- **Informazioa eskatzea** babes zibilean, ingurumenean, kultura-ondarean eta natura-ingurunean eskumena duten Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko sailei, dauden arriskuei buruz eta udalerraren antolamenduak errespetatu behar dituen ingurumen-



baldintzatzaileei, kultura-ondarearen babesari eta natura-inguruneari buruz.”

2021eko irailaren 17an Udal Plangintzako Aholku Batzordearen bilera egin da eta aho batez onartu da proposatutako parte hartze programa.

Tolosako udaleko Lurralde Batzordeak, 2021eko irailaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Egoitz Sorozabal Iturain, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Patxi Amantegi Zubiria, Jose Mari Villanueva Telleria, Andu Martinez de Rituerto eta Aitzol Garcia.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Tolosako HAPOko 24. lurre Hirigintza Esparruko aldaketa puntualari buruzko espedientea **hastea**.

BIGARRENA.- Aldaketa puntualaren prozesuko herritarrek parte hartzeko programa **onartzea**. Programak honako eduki hau izango du:

- **Talde eragile bat sortuko da parte hartzeko prozesua diseinatu, koordinatu eta jarraipena egiteko.** Bertan honako erakundeetako ordezkariak hartuko dute parte: Osakidetza, GFAak eta Tolosako Udalak.
- **Herritarren parte hartzeko bilera irekiak antolatuko dira.** Bilera hauek bi fase izango dituzte: lehen fasean, dokumentuaren idazketaren hasieran, diagnostiko teknikoa osatzeko ekarpenak jasotzeko bilerak egingo dira. Bigarren fasean, berriz, hirigintza-dokumentuaren aurkezpena egingo da.
- **Hirigintza-agiria herritarren eskura egongo da** Tolosako Udaleko bulegoetan eta web orrian eta ulertzeko beharrezko informazioa emango da.



HIRUGARRENA.- GAOn argitaratzea Tolosako HAPOko 24. lurre Hirigintza Esparruko Aldaketa puntualaren Herritarren Partaidetzarako Programa, eta informazioaren teknologia berrien bidez zabaltzea.

LAUGARRENA.- Informazioa eskatzea babes zibilean, ingurumenean, kultura-ondarean eta natura-ingurunean eskumena duten Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko sailei, dauden arriskuei buruz eta udalerraren antolamenduak errespetatu behar dituen ingurumen-baldintzatzaileei, kultura-ondarearen babesari eta natura-inguruneari buruz.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Tolosako Hiri Antolamenduko Plan orokorrako 24. lurre Hirigintza esparruko aldaketa puntualari buruzko espedientea hastea eta herritarren parte-hartzeko programa.

20.TOLOSAKO UDALLEAN ETXEBIZITAK ALOKATZEKO DIRULAGUNTZA EMATEKO OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA BEHIN BETIKO ONARTU IZANAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak, 2021eko maiatzaren 27an egindako Osoko Bilkuran, hasierako onarpena eman zion Tolosako Udalean Etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantzari.

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen Legearen 49.b artikulua xedatzen duena betez, informazio publikorako ikusgai jarri zen hogeita hamar egunez, iragarpen hau Gipuzkoako Aldizari ofizialean argitaratua izan zen eta hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Hasierako onespeneko iragarkia ondoko hedabideetan argitaratu da:

- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2021eko ekainaren 18eko 114 zenbakian.
- Web orrian eta Gardentasun atarian, 2021eko uztailaren 14tik abuztuaren 26ra arte.



- Udaletxeko Iragarki taulan, 2021eko uztailaren 15etik abuztuaren 26ra arte.

Informazio publikoko epean ez da inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztu, beraz, behin betikoz onartuzat ematen da.

Ohartuta 17.artikuluak akts bat egon dela, zuzendu egin da, era honetan:

VIII.ERREKURTSOAK

17.Artikuluak:

“Oinarri hauen aurka ondorengo errekurtsoa aurkeztu ahal izango da: Helegite kontentziosoa, Euskal Herriko Auzitegi Gorenean, oinarriak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta, bi hilabeteko epean”

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

21. BURUJABETZA ENERGETIKOARI BURUZ MOZIOAK.

EHBILDU TALDEAK AURKETZUTAKO MOZIOA.

Mozioak honela dio:

“DESKONEKTATU ELEKTRIKETATIK Haien iruzurraren aurrean, burujabetza energetikoa!

Argindarraren prezioa maximo historikoetan; fakturak igotzen; enpresa elektrikoak aberasten, herritarrak pobretzen eta Espainiako Gobernua hori baimentzen. Hori da, hain zuzen ere, herritarren aurka egiten ari den iruzur handiaren laburpena. Iruzur horrek ondorio larriak izan ditu familietan, enpresa txiki eta ertainetan edo denda txikietan. Gobernuak, politikariek, elektrikoek eta guztiek partekatzen dituzten interes ekonomikoek sortutako eta baimendutako iruzurra.

Haiek izan ziren, Espainiako Estatuak gobernatu duten alderdiak, bai PSOE eta baita PP ere, enpresa publikoak pribatizatu, saldu eta desegin zituztenak, sistema desarautuz eta "merkatuaren" esku utziz. Administrazio Kontseiluek kontrolatzen eta manipulatu duten merkatuaz ari gara, bi alderdiotako presidente eta ministro ohiez osaturikoa. Helburu bakarrarekin: energia bezalako funtsezko ondasun baten kontura aberastea.

Horrela eraiki zuten haien neurritan eginiko merkatu elektrikoak, energia merkeena garestienaren prezioan ordaintzera iristeraino. Argindarrarekin espekulatu eta manipulatu dute merkatua, ura edo haizea bezalako ondasun publikoen bitartez. Oligopolioko enpresa handiek, Endesa, Iberdrola edota Naturgyk, milioi askoko irabaziak metatzen dituzte urtero, kontsumitzaileei dirua lapurtzen eta ekoizleei lurraldeak ebazten dizkieten bitartean, ondorio sozial eta klimatiko oso larriak eraginez. Zerutik eroritako



etekinak dituen sare oso bat osatu dute urteotan, argindar konpainietako akziodunen poltsikoetan amaitzen dena. Negozio biribila.

Egoera horren aurrean, eskandalu horri aurre egiteko neurri koiunturalak eta adabakiak besterik ez ditu hartu Espainiako Gobernuak, iritzi publikoaren eta indar politiko subiranisten eta aurrerakoien presioak derrigortu duen arte. Eta enpresa handien onurei eragingo dien neurri bakarria hartu duenean, enpresa xantaia egin diote eta mehatxura jo dute; ez bakarrik Espainiako Gobernuari, baita argindarraren faktura merkatuko zaiela espero duten milaka herritarrei ere. Eliteen eta gehiengo sozial eta herrikoien arteko pultsu baten aurrean gaude, finean.

Bada, katalanek, euskal herritarrek eta galiziarrek, fronte komun bat osatu dugu gaur oligopolio energetikoaren mehatxuen aurka, Espainiako Gobernuak iruzur elektrikoari egiturazko neurriekin aurre egiteko erakutsi duen borondate eta ekintza falta salatzeaz gain.

Izan ere, gure herrialdeek, Herrialde Katalanek, Galizak eta Euskal Herriak, ez dute iruzur elektrikoari eta horren erantzuleei aurre egiteko beharrezkoa dugun subiranotasuna. Gure parlamentuak eta gobernuak Espainiako Estatuari lotuta daude, eta horrek guzti hori gertatzea ahalbidetzen du. Gaur- gaurkoz, merkatuan esku hartu ahal izateko, oligopolio elektrikoari aurre egiteko eta gobernuak ausardia faltagatik hartu nahi ez dituen neurriak martxan jartzeko tresna propioak ukatzen zaizkigu.

Espainiako Estatuarekiko dugun menpekotasun energetiko eta politikoa oztopo argi bat da gure herritarrek enpresek egiten dituzten gehiegikerietatik babesteko. Prezioei muga jartzea, arlo publikotik esku hartzea eta kontrolatzea eragozten digu horrek. Tarifa propioak, arau propioak, merkatu propioak eta, beraz, irtenbide propioak sortzea eragozten digu. Azken finean, publikoa zena berreskuratzea galarazten digu.

Gure herriek subiranotasun energetikoa ez izateak oso garesti ateratzen zaigu galiziarroi, katalanorri eta euskal herritarroi. Bada garaia gure nazioen eraikuntzan ere burujabetza energetikorantz aurrera egin dezagun, ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak izan ditzagun, sistema bidezkoak publikotik eraikitzeke eta argindarra errespetatzeko, oinarrizko ondasun eta eskubide gisa.

Hori dela eta, Tolosako Udalak honako hau adierazten du:

- 1. Espainiar estatuko enpresa elektrikoak argindarraren prezioarekin egiten ari diren iruzur larria salatzen du*
- 2. Euskal Herriak subiranotasun energetikoa behar du, espainiar estatuan ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak behar ditugu, sistema bidezkoak publikotik eraikitzeke eta argindarra oinarrizko ondasun eta eskubide gisa errespetatzeko.*
- 3. **Eusko Jaurlaritza/Nafarroako Gobernua** interpelatzen dugu, lankidetzeta publiko-komunitarioa, deszentralizatua eta kontrol publikoa bermatuko dituen neurri zehatzak har ditzala presazko izaerarekin.*



4. Tolosako Udalak urriaren 8an, 22:00etatik 22:30etara deitutako itzalaldi masibo eta kazola-jotzeko deialdiarekin bat egiten du.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Aurkako botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **ez du onartu** EHBildu taldeak aurkeztutako mozioa.

EAJ-PNV ETA PSE-PSOE TALDE POLITIKOEN AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Mozioak, honela dio:

KONEKTATU ENERGIA TRANTSIZIOAREKIN

MOZIOA

Trantsizio energetikoari aurre egiteko lanak – nahiz eta termino hori garai hartan normalizatuta ez egon – bultzatu zuen Eusko Jaurlaritza duela ia 40 urte Energiaren Euskal Erakundea sortzera. Petrolioarekiko mendekotasuna garrantzitsua zen, eta da oraindik ere. Ordutik, Euskadik energia berriztagarriak, eraginkortasuna eta baliabide propioen aldeko apustua bultzatzen ditu, energia-eredu berri baterako trantsizio-prozesu horri aurre egiteko.

Euskal gizarteak bere energia-eskaerari erantzun behar dio, eta euskal energia-ereduak gero eta jasangarriagoa den eredu baterantz migratzen jarraitzen du. Eredu horrek kalitatezko hornidura lehiakorra bermatuko du, berriztagarrien ekarpen gero eta handiagoan oinarrituta eta petrolioaren deribatuen erabilera minimizatuta. Herritarrak gero eta gehiago jabetzen gara klima-aldaketak dakarren erronkaren erantzule ere bagarela. Honek, gaur egun, bultzada handia ematen die Euskadin energia demokratizatze eta ingurumenarekiko berme osoz egiteko egokitu ditzakegun politikei.

Euskadi energia-eskaera handiko herrialdea da, batez ere industria-izaeragatik, baina garraioa da energia gehien kontsumitzen duen sektorea (kontsumitzen den energia guztiaren % 43). Enpresek merkatu elektrikorako sarbidea behar dute, baldintza



lehiakorretan, ekonomiaren zati handi bat eta kalitatezko enplegu asko horren mende daudelako.

Balantzaren beste aldean, beste errealitate bat dugu: energia gutxi ekoiztea. Horrek kanpora erostera behartzen gaitu, eta beste batzuek ezartzen diguten prezioan egitera. Autosufizientzia eta burujabetza energetiko falta horrek elektrizitatearen prezioari eragiten dio, gure etxeetako argi-fakturari, batez ere ahulenei, eta gure enpresei eta haien lehiakortasunari.

Euskadin gas propioa ez kudeatzeari buruz hartutako erabakiak gure energia-eskariaren prezioak gora egitea ekarriko du datozen hilabeteetan; izan ere, Araban daukagun gasa ekoizteari uko egin bazaio ere, EAeko familiek gas bat kontsumitzen dute, ondorioz, inportatu egiten da, horrek suposatzen duen ekonomia- eta ingurumen-kostuarekin inportatzen da.

Demagogia- eta amorru-diskurtsoak zabaltzeaz harago, gure esku dauden ekimenekin jardun behar dugu. Irakurketa sinplista eta partzialetatik harago, eraikitzaileak izan behar dugu, eta ez ditugu baztertu behar ingurumen- eta energia-erronkari aurre egiteko bideak. Mota guztietako berriztagarriak (eta biltegiatze-soluzioak) areagotzea, parke eolikoak eta fotovoltaiakoak barne, eta energia aurrezteko funtsezkoak dira Euskadiren subiranotasun energetikorako bidean.

Premisa horiek aintzat hartuta, TOLOSAKO UDALAK honako hau proposatu du:

- 1.- Udal honetan ordezkaturik dauden alderdiek Euskadin energia berriztagarriak ezartzeko eta energia aurrezteko duten konpromiso politikoa berrestea.*
- 2.- Herritarren kontzientzia zorrotz eta egiazkoa sortzen laguntzea, trantsizio energetikoarekin eta klima-aldaketaren erronkarekin bat etorritik jardutea errazteko.*
- 3.- Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde- eta toki-erakunde guztiei (aldundiak, udalak, mankomunitateak, kuadrillak) eskatzea trantsizio energetikoan beren zeregina betetzen jarrai dezatela eta efizientzia, berriztagarriak eta energia kudeatzeko kooperatibak eta energia-komunitateak bultzatzeko faktore erabakigarriak sar ditzatela.*
- 4.- Herritarrei dei egitea energia-komunitateen autokontsumo formulekin bat egiteko aukera baloratu eta aztertzeke.*
- 5.- Eremu ekonomiko, sozial, politiko eta akademikoko eragile publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea, energia-eskariak eta haren prezioak dakarten erronka komunari irtenbideak elkarrekin sortzeke.*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.



Aurkako botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **onartu du** EAJ-PNV eta PSE-PSOE talde politkoek aurkeztutako mozioa.

22. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Besterik gabe, 21:45ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanda.

ALKATEA
O.e.

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021IPLE0008-2021-09-30 Ohiko osoko bilkura akta/2021-09-30 Ohiko osoko